

anaitasuna

1978. EKO EKAINAREN 1EKOA - 364 ZENBAKIA - 50 PTA.

9

KONSTITUZIOARI:
EZETZ
BIBIBILA

(Guk geu herri eta pentsamoldez laguntzea, gure lehen kultur historian datza, nondik gatozen ohar eta zein den gure esperientzia, niendetan zeharretik datorkigun elementuez konturatzea, zeren gure sustraietatik iritsi zaigun bideak erakutsiko baitigu gure etorkizuna.)

Barandiaran Joxemiel

Aurrehistoriagile eta etnologoa Euskaltzaina.

EUSKAL KULTURA HIL ALA BIZIAN

Honen salbamena Euskal Herrian bizi garenon eskuetan dugu.

Kultura (lege eta erakunde, material eta gogo agerpenak, hizkuntza etab.) ez da besterik edozein gizon eta herri eguneroko bizitzaren uxada ezberdinetan ematen duen erantzuna baizik. Eta norberaren kultura gabe, ez da herririk.

Horregatik euskal kultura gabe ez da Euskal Herririk.

Bat euskalduna jaiotzez edo izateko gogoarengatik da.

Ez gaitzen atzipe, Euskara ez duenak ez da euskalduna. Euskarak hainbat eta hainbat urtez Euskal Herriak sortu eta gordea bitzta ikusteko eta ulertzeko filosofia bat du beraz jabetuz gero; Honela bizitzari aurre emateko gertakizun berezi bat lortuz.

Euskaldun izatea ez da bat ere erraza Euskal Herriak izan dituen lege eta erakundeen barnean bat ez bada bizi, berak gizarite harreman batzutan barne izanik gizarite portaera bat jarraitzen duenarengan.

Azkenik, euskalduna izaten ez da erraza, euskal izakera batetatik datozen agerpen material eta gogozkoetan finka ezik egungo zereginei erantzun bikain bat emateko, guztionek izakera berezi, mugatu eta partikular baten izan behar baitu.

Egoera hontan gaudu Euskal Herrian bizi garenok: Euskal kultur ahul baten barnean, EZ DA BAT

ERE ERRAZA EUSKALDUNIZATEA.

Baina honez gainera beste hizkuntza baten lege eta erakundeak ezartzen badizkigute, gure euskal izakera oraindik indargabetuago gelditzen zaigu eta zeharo hilzorian.

Zer egin?

Herri bezala desagertzea nahi ez baldin badugu, Euskal Herrian bizi garenok izugarritzko ahleginak egin behar ditugu gure kulturaz berjabetzeko.

Bakoitzak biderik egokiena aukeratu behar du: Euskara ikastea, euskaldun izateko beharrezko da euskaraz jabetzea edo zeure senieek ikas dezaten aukera eskaini; hauzategi, ikastetxe eta barretatik zehar euskal ekintzak sor eta bultzatuz edo euskal kulturaren barnetzeko beste zerbaiz asmatuz.

Honengatik EUSKALTZAINDIAK BAI EUSKARARI deritzan Kanpaina hasten du.

Honen helburua: Diru biltzea eta nahimenak batzea euskal kultura eta euskara sendo, lagun eta bultzatzeko.

Gure herriak bizitzea nahi baldin baduzu lagun ezazu BAI EUSKARARI kanpaina.

Euskal Herriak ez du hiltzerik nahi, bizitzea nahi du, biziko zaigu: DENON ARTEAN BIZI ERAGIN BEHAR DIOGU!

Nahi nuke BAI EUSKARARI laguntzeapezetatoko diruz.

Behin

Urtekoa

Hiru hilabetero

Hilero

Izena

Deiturak

Helbidea

Herria

Probintzia

Z. K. (Cta. Cte. libreta)

Bankua

Aurrezki Kutxa

EUSKALTZAINDIA
Ribera, 6, entlo.
Tfno. 415 27 45 - BILBAO-5



REAL ACADEMIA
DE LA LENGUA VASCA
EUSKALTZAINDIA
ACADEMIE ROYALE
DE LA LANGUE BASQUE

EKAINAK
16
EUSKARAREN
EGUNA

Euskal kultura eta euskararen aldeko diru eskaera.

AURKIBIDEA


- 3 Editoriala
- 4 Amnisti Astea
- 5 Maiatzaren lehena eta abertzaleak
- 6 Internazional Inperialismoaren aurka
- 8 "Harki"rik ez
- 9 Euskal errefuxiatuak
- 12 Mila Kontu
- 13 Agustin Ibarrola pintatzailea Iruinean
- 14 Medikuntz fakultateko ikasleen agiria
- 15 Ohar laburrak
- 16 Kontituzioa (IV)
- 19 Jon Idigorasekin elkar ikuska
- 23 Argentina 78
- 24 Zaire
- 26 Benjamin Disraeli
- 29 Kirolak euskaldundu nahiz
- 30 Etxeko lanak
- 32 Okerrak zuzentzen
- 34 Sukaldeko saltsak
- 35 Hamabostaldiko diskoak
- 36 Postak
- 37 Gurutzegrama
- 38 Kaleko. Zilarrezko krabelina

ANAITASUNA

ZUZENDARITZA, IDAZKARITZA, ETA LANKIDEGIAK: J. Arzelus, T. Trifol, J. Llerandi, X. Kintana, M. Aldana, X. Gereño, J. M. Torrealday, M. Alvarez, A. Oiarzabal (Gipuzkoa), I. Zabaleta (Araba eta Nafarroa), M. Lanhatoua (Iparralde), X. Arzelus (Bizkaia), J. R. Etxebarria, P. Agirrebaltzategi, A. Eguzkitza, X. Mendiguren, I. Azkoaga, A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmendi, J. Iturbe, B. Atxaga, I. Urtasun, M. Haranburu, M. Lasa, I. Mendiguren, Jon Etxebarri, R. Ordorika, E. Enziondo, J. L. Alvarez, S. Laffite, M. Pagola, J. Idigoras, J. Agirreazkoenaga, K. Anakabe, E. Martin, J. Aurre.
MAKETAPENA: F. Garcia.
FOTOGRAFIA: Susperregi.
KOMIKILARIA: A. Olariaga.
PUBLIZITATEA ETA HARPIDETZA: J. Idigoras, A. Uria, I. Apraiz, A. E. Marroquin.
IDAZKARITZA, ADMINISTRAZIOA ETA HARPIDETZA: Zabalbide 68-BILBO. Tf: 4335800/7/8/9.
MOLDIZTEGIA: Iparragirre S. A. Carretera de Galdácano s/n, BILBO.

OHARKIZUNA

Anaitasuna ez da arduratuko artikuluen edukiek duketen erantzunkizunaz. Beronek ez du esan nahi ez alde ez aurka dagoenik. Bestaldetik, beregain hartuko du editorialearen eta bere izenez izenpetutako artikuluen erantzunkizuna, berau baita (hola dugu ulertzen) bere ideologi hildoa.



EZETZ BIRIBILA

Estatuko herri guztien bizitza soziopolitikoak, hurrengo urteetarako mugatu egingo duen Konstituzio bat egiten ari dira Madrileko Gorteetan. Hau onhartzen den mementuan, autoritarismoaren garaia bukatutzat eta frankismoa erabat hiltzat joko da eta Europa eta munduko Estatu gehienek Espainia demokrazia bat dela onetsiko dute.

Konstituzio guztiek, interes zehatz batzuren bilakatzea mugatu nahi dute, berauk pikutara joateko arriskua ikusi dutenean batez ere. Holaxe gertatu da Espainiako konstituzioan. Herrien bizimodua mugatu egin da, aginduko gaituzte, izaeren nortasunak birinduko dituzte. Konstituzioaren bidez, betiko estruktura zapaltzaileak finkaturik geratu dira epe luzeetarako.

Ez da kontsentsuaren konstituzioa, indar harmatuek eta betikoek inposaturiko konstituzioa, dugu hau ere. PSOEek eta PCEk, herria abandonatuz, zerbitzari ttipien moduan, ogiapurrekin konformatu eta gizendu behar. Horixe dugu konstituzioaren berdintasuna. Horregatik konstituzio hau egin duten eta berau onhartzearen alde egonen diren Estatuko alderdi majoritariak Franco jeneralaren heredentziaren gordetzaille zintzoak bihurtu zaizkigu, eta hau guztiau "demokraziaren zerbitzurako". Baina konstituzio honek ez ditu Espainiako herriak askatasunerantz eta sozialismorantz eramango. Konstituzio honek ez du balio sozialismo baten oinharriak finkatzeko, ez du balio Euskal Herriaren nortasuna eta bakea betirako finkatzeko.

Historian zehar datorkigun desarroiloa eta iraultza geldiarazteko eta mugatzeko balio izango du. Hala ere entseiu honetaz arduratzen direnak herrien bilakatzea ezin dela gelditu jakin bezate...



Euskal Herrian ez dago demokraziarik Espainian ez naiz sartzen.

AMNISTI ASTEARI BURUZ

Beste amnisti astea eratu behar izan da, eta odoletan bustita berriro ere. Zenbait euskal borrokalari espetxeratuak aurkitzen baitira, eta beste zenbait atzerriratuak. Urte honetan, halere, Aldalurren gertaerak ikuspegi berezia ezarri dio asteari. Garbi ikusi baita Frantziako eta Espainiako ((Europako besteak bezalatsu) inperialismoak elkarren interesak bildurik ekin diotela, Euskal Herria (Ipar-Hegoa), zanpaturik eta zatikatuturik mantentzearen ez dute Genebako eta Frantzia bertako legebidea hausteko eragozpenik.

Joandako urtean adinbat jende ez da mugitu, baina dagoeneko alderdikeria eta desmobilizapen giroan mobilizapen hau kontuan hartzekoak dira. Alderdiek geroz eta gutxiago bultzatzen dituzte herri mobilizapenak. Eta mobilizapenak eratzeko izenak eman dituzten alderdiek ere, ez dute alderdi bezala hagina tinkatu izan, ofizina burokratikoetan izenpetu bai, eta ez baitute alderdi tresna deus bultzatu, eta ibili diren ekintzaileak prentsarik edo gestoren deiarri erantzunez ibili dira. Ba dugu hemen zenbait kritika eta autokritika egin beharrik. Asanbladari eta herri borroka omen ziren alderdiak ere herri borroka bazterratzen ari dira.

Dena den, amnisti astea lehen egunez kaputxinoetan gaua igaro ondoren eratu zen manifestaldira zenbait alderdik dei egin bazuten ere, manifestaldi urri eta lotsagarria geratu zen, eta alderdietako inor gutxi.

ETAko borroka harmatua gainean egonik ere, Gernikan, ihazko Itxasoakoaren gisa, bi borrokalariak balaz josi

eta garbitzean, Durangon greba orokorra eta Euskal Herri osora hiletak, manifestapenak eta asanbladak hedatu dira. Iruinean eskuin muturreko edo poliziparekoei ere gogorki erantzun zaie. Eta astea burutzerakoan txirrindularien Espainiako buelta Durangon moztua izan zen, eta arratsez, Hernialdean erlojukontrakoan zihozten txirrindulari batzu geldieraztean, karre-rari zati hura ere deskalifikatu beharrez aurkitu ziren.

Maiatzak 16, Donostiako katedralean Alberto eta Txikiren hiletarako deia egiterakoan ere, Aministiaren aldeko gestorekin batera HASI, LAIA; ESB-ANV (Herri Batasuna), PTE; eta LAB eta CSUT sindikatuak besterik ez ziren agertu. Garbi dago alderdi gutxi bultzatzen dutela jadanik herri borroka eta autoeraketa. Eta beren hitz merkeetan ez baina beren burokratismo eta erreformismo integratzailean sinetsi beharko dugu.

Gipuzkoan, bi puntutan kokatu zen, batik bat, Amnisti Astea herri mobilizapena, AZPEITIA eta ERRETERIA. Azpeitian Aldalurren extradizioa dela eta herri asanblada, eta alderdien mahai-inguruak informaketa gisa eratu ziren, eta bai milakako manifestaldiak kaleratu ere.

Oraingo honetan Gipuzkoako kapitalitatea, berriz, Errenterian bereganatu du. Herri langile eta borrokalari hau Donostiatik hurbil egonik, bere bi giza-eme hilen urtebetetzea betetzen baitzuen. Hemen gertatu dira manifestaldirik ugariak eta sutuenak. Prentsa eta komunikabideak minoritarien erradikalitasunak direlakoan edo... Errenterian manifestaldiak minimizatu beha-

rez ihardun dira. Hamar milatik gorakoak baziren ere, "un millar" aipatu eta kito, horrekin konplitu bai eta herri mobilizapenak nola baztertu salatu. Hori ba, ondoren G.C.ekin izan borroka eta tiroak, probokatzailerantzuren soilkeria bezala aipatu Espainiako komunikabide orotan. Komunikabide hauetatik ez da Herri Irratiarentzat ere salbuespenik. Hain ere aspaldidanik guztiz legezale, parlamentari eta erreformista agertze baitzaizkigu, herri mugimendua bazterturik. Hain zuzen ere, gure errebelatzaileak agertu eta entzunerazteak ez da nahikoa, manifestapen ugariak eta baketsuak eratzeko (Maiatzak 16 Donostiako hiletaren ondorengo manifestapena eta geroztikako frantses kontsulatu eta frantses banka batetik kristal hausetak, lekuko), hautsi-mautsika, barrikadak eta erasoka egin behar da noski, komunikabideok herri deihadarrari garrantzia eman ahal izateko.

Beharbada, interesgarria litzateke dagoeneko Euskal Herrian burjuazko demokrazia sendotu den, sendotzen ari den edo sendotzen lagatuko ahala duguneko (eta zein neurritan) eztaba da sakona.

Lantxo hau Anaitasunara bidaltzeko nengoela, Fuerza Nueva-koak diralari eta Amara aldean gertatutakoak ezin sinetsizkoak dira. Gizon hauk pistolero tiroka, une batzutan eskupeta, eta metraileta eta guzti eta armadako berebil sailak pistoleroak zaitzen eta laguntzen. Migel Angel Pascual balaz zaurituta Arantzazu Erresidentzian eta zenbait kristal hautsiak. Hori bai, euskal burrukalariak edo ETAkoak badira nonahi eta nolana herri erhan eta garbitu behar dira, Blas Piñaren pistoleroak, ordea, ordenu zaintzaileen bidelagunak dira. Guztiok ere Espainia batu, uniformatu, sakrosantu eta oligarkiatu berbera defendatzen baitute.

Bukatzeko, hara maiatzak 12 Errenterian iztieta Elizan ospatutako Mitin-Jaialdian Iñaki Esnaolak, Miontzonik eta Koko Aberryk azpimarraturiko hitzak:

"Terrorismo instituzionalari ez. Aldalurren gertaerak larrugorrian lagatu du Frantzia eta Espainiako sasidekrazia eta beren arteko inperialismo erraia. ETAk ez du oinordekorik, ETA hor dago, zuek ere ETA zarete". (Iñaki Esnaola)

"Gure errebindikapenak isekaz eta zokoratuz hartuak izaten dira. Iparraldean ere burruka harmatuari heldu behar izan diogu". (Koko Aberry)

"Euskal Herrian ez dago demokraziarik, Espainian ez naiz sartzen. Euskal Herrian hilak, espetxeratuak eta atzerriratuak izanen ditugu Euskadire burjabetasuna lortu arte. Euskadi ezin daiteke eraiki ezker abertzaleak gabe eta borroka harmatua gabe." (Miontzon)

MAIATZEKO 1.a ETA ABERTZALEAK

Barne Ministeraritzak maiatzeko 1.eko manifestapenak direla eta "abertzale" hitza zentzu erradikal eta antisozial batez erabili du, abertzaletasuna eta abertzale alderdi erakundeena izena gutxietsi eta zikindu beharrez.

Abertzaleok, ordea, beste inork baino hobeto dakigu geure abertzaletasunaren berri. Abertzale izatea, Euskal Herria maitatuz gero, bere askatasun osoaren alde ihardutea baita. XIX. mendeaz gero, burjes inperialismoak Bidasoan muga ezarriz, hautsia eta zatikatua aurkitzen da Euskal Herria. Horregatik, eta muga gaindikoa denez, geure senide odola eta gogo bera nabaritzen dugu bai Iparraldeko Zuberoa, Lapurdi eta Behenafarroan, eta bai Hegoaldeko Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan ere. Abertzale ez direnentzat, ordea, hau guztia zeru goietako doinua besterik ez da.

Beraz, gure abertzaletasuna hiru habe hauek sostengatzen delakoan aipatzen ditut, hau da: 1) Euskal Herriaren askatasuna (Burjabetasuna). 2) Euskal Herriaren birbatzea (Ipar-Hegoaldekoak). 3) Euskara Euskadiko nazional hizkuntza berbizian bihurtzea.

Bestalde, abertzaletasuna ez dago internazionalismoaren aurka. Internazionalismo bortitz bat eratzeko, internazional proletaritzaren sendotzeko, hain zuzen, norbere Herri edo aberrik abiatzen da. Bestela ez litzateke benetako internazionalismoa izanen, chauvinismoa baizik. Maiz, ordea, edo Barne Ministraritzak edo beste behingo Mugica Herzogek, e. a. abertzaleak eta nazionalistak mespreziatu ohi dituzte, berak nazional espainolistak izaki, neokolonialist edo inperialist jokoan dihardutelarik ohartzeko.

LABen JARRERA

Maiatzak 1.eko hariari helduz, Bilbon anarkoek eta Kas-eko abertzaleek PNVren ordenu zainzaileei eraso omen zieten, gero dirudenez, anarko-abertzaleak omen, KAS alderdietarikoak baitziren nahasketa hura lehenik moztera jarri zirenak.

Dena dela, maiatzak 1.ean euskal sindikatuen indarra nabarmendu da, manifestapen hauek axalekoak badirudite ere. Alde batetik, CC.OO. eta UGT kementsu atera badira, aertzaleen aldetik ELA eta LABek aurrekoekin

parekatzea lortu dute. LABek euskal 4 hiriburuetan lortu duen arrakasta izan da sorpresa, LAB ez baita sindikatu soil bat bezala agertu, euskal langileria iraultzaileen sindikatu bezala baizik. Hortik, erakunde honek sindikal slogan normaletatik aparte ere, bota dituen abertzale iraultzaileen "Independenztzia", e. a. betikako oihuak.

Orain, bai LABen eta bai beste sindikatuen balorapen batzu egin beharrez aurkitzen naiz. Nahiko garbi ikusi zen CC.OO. eta UGTek etorkin jende multzoak zekartzatela, eta ELAk (adineko jendea batipat) eta LABek euskaldun langileria.

Hobe esateko, euskal langileria, Euskal Herrian bizi eta lanean diharduen orok osatzen du. Eta alde honetatik sindikatu bakoitzaren hertsikeria eta protagonismokeriari galbahaketa bat eman beharko litzaioke, eta batere salbuespenik gabe, gainera, oraingo honetan behintzat. Maiatzak lehenengo manifestapenetan erradikalenak LABekoak izan dira, dudarik gabe, eta merezi du arazo honek sakonki aztertzea. LABek klase arazoa eta nazional arazoa, besteak ez bezala, eta batbatean kinkatzean, ezker abertzale iraultzaileak LAB ikusi dute beren neurriko langileri erakundea, horregatik, maiatzak 1.ean sindikatugabeko askik partehartzean, pixka bat lekutik kanpo atera ere egin zela aitortu behar, LABeko zuzendaritzak bere agiri protestan argitara eman bezala. Baina, bai LABek, bai beste sindikatu guztiek dute gauza batzutan amoreman beharra. Maiatzak 1.a ez zen LABen setakeria bakarrik nabarmendu, UGTkoek "Unidad Obrera UGT-CC.OO." oihukatzeak nahiko setakeria nabarmentzen baitu, LAB aldekoak "espainolistak" oihukatzerak bultzatuz. Baina esperientziarik ezeko bihozkada horik gorabehera, euskal langileria indar hartuz eta batuagotuz doala dirudi. Edo saiatu behar genuke behintzat. Segur naiz hurrengo maiatzak 1.ean langileen sindikatuen arteko errespetu eta batasun gehiago izanen dela. Batasun bide horrek, halere, oinharritik, entepresetatik abiatu eta heldu behar du, manifestapen orokorrak batuagoak eta indartsuagoak gerta daitezten.



HERRIAK HERRIEKIN INTERNAZIONAL INPERIALISMOAREN AURKA

Gaurkotz, guztiok dakigu Aldalur-Larrañaga Frantziak Espainiari saldu duela. Ba dakigu ere Alberto Mendiguren preso dagoela eta kasu berdinean dugu Iparraldeko Xan. Ez dut, pertsona hauetarik, bakoitzaz hitzegi nahi ez eta ere hauen borroka maneraz, baina uste dut Aldalur Larrañagaren kasuak fenomeno guztiz larri bat nabartzen dígula. Fenomeno larri hori da, estatu kapitalisten eta inperialisten jarrera berria, elkartzeko itun antiterroristak sortu dituzte. Mundu guztiaren jakinera eta dudamuda izpirik gabe, polizia giro internazionalista batetan



Europako gobernuak batzen ari dira "terrorismoaren" kontra.

sartzen ari gara. Hau da, egituren mailako egitura garrantzitsua, gaurdanik, ekintzetan zehar topatzen duguna eta topatuko duguna. Botere zapalzaileen mende berri bat eta zapalduen zapalkuntza era berri bat. Frantziak eta Espainiak izenpetu dute akordio berri hori, Europa mailako beste 21 estatuek ere, hau errealitate oso inportantea, euskal borrokak kontutan hartu behar duena, labur laburra esateko, hemendik aurrera Estatu zapalzaileek denak permiti izanen dituzte. "Convention de Genève" eta horrelako paperezko hitz ederra hil orduan dabilta edo hileta gertatzen dira. Akabopertsonaren defentsa, bururatu dira demokraziaren irudiak. Egia esan sasi demokraziak iraunen dute baina beti eta ustelago, beti eta mamigabeak bilakatuko zaizkigu. Euskaldunontzat nabari da beraz, ez dela gaur ordua borrokaren arintzeko eta biguntzeko. Nabari da, borroka gogortu behar dela, sasi demokraziak salatu amaitu gabe, eta batipat populua argitu. Ba dirudi, ez dugula aukerarik ezen ez baitugu geuk geure nahitara hautatuko borrokaren gogortzerik baina internazional kontestu berri horrek gaituela horretara behartuko. Bai, gaurkoan, nahi eta nahiez behartuak gara jarrera berri honetara. Kontestu berri honek dirau eta zer erantzun ematen dute populuek?

POPULUEN EZAXOLKERIA ETA DESKULTURATZEA

Guziek, edo guttienez bi pentsaketa egiten ditugunok, ikus dezakegu internazional ingurumen berri hau, baina zoritxarrez populuek ez dute ikusten. Eta jendeak ezaxol nahiago du ibili, ezen ez eta begiak ireki, azterketa apur bat egin. Jendeen sozial ingurumenak dakarkigu eta batipat telebistak sortzen digu. Telebistaren eragina agertzen zaigu ere langileen erantzunetan, hauen aiherkundan eta "terrorismo" ageriaren kondenazioetan. Hots, jende zenbait lo dago eta beste batzuk jarraitzen dituzte telebistaren manuak. Populuen jarrera honetan bi puntu nagusi ikus ditzakegu: deskulturatzea eta manipulazioa.

Oroitzu gara, nola Burgoseko hauzian erantzun internazionalak bere eragin indartsua ukan zuen. Hemendik aurrera ez dakigu holako indarrik posible izanen den. Ezen gaur, edozein manipulazio kontrako sortzen ahal baitigute. Oligarkiek eta zapalzaileek, telebista, baita prentsa ere eskuratu geroz, nahi duten manipulazio hura egiten dute. Adibidez, ba dakigu Frantziaren bertan ez dagoela prentsaren askatasunik eta nola kazeta handi guztiak politika indarren manupean dabilta. Beraz, informazioaren askatasunik ez dago eta alderantziz ere ez dago aukeraren askatasunik. Hau dena da, populuen deskulturatzeko prozesua.

Bizkitartean, gazteak inoiz ez dira mende hontan bezain "eskolatu" eta berdenboran inoiz ez dira mende hontan bezain errazki manipulatu. Ez gaitzen arrazonamendu tankera honen negatibokeriara eror, egia da ere, gaurko instituzioen kritika sakonena gazteeengan dugula topatzen. Hain zuzen, beharbada deskulturatzeko hori sentitzen eta bizitzen dutelakotz. Hala-baina, ez ahal dute hauek deskulturatzearen lehen aulkia (ikastetxeen bitartez, etab.). Dena dela, hona populuen eta gazteen kontestua. Beste erantzun moeta bat edo erantzun berdintsua dugu sindikalismo ofizialena.

SINDIKALISMO ETA EZKERREKO ALDERDIEN ERANTZUNA

Bi estruktura hauk saltsa berean murgiltzen ditut, ezen, ba dirudi sasi demokraziarekin oso ongi antolatzen direla (adibidez, ikus PC italianoaren jarrera. Ikus ere Aldalurren arazoak zer erantzun ukan duen ezkerreko politikarrien organismo ofizialetan: ezer ez!). PC-k ez du ezkerreturrekoengandik gauditua izan nahi. Hots, biak ados dira gaurko nazio inperialisten mugekin, instituzioekin eta hauen defentsa lortzen digute. Adibidez, guztiek entzun dugu "nahiago dutela Espainia bat gorria ezen ez Espainia bat moztua" eta nork ez daki lelo zahar hau "la France une et indivisible". Argi dago, eskuin eta ezker, eskuz esku dabiltzala eta behar orduan salto berdin batean elkartuko zaizkigula: inperialisten elkartasunean. Baina hauk, arrazoi politikoak dira eta horregatik erakunde ofizialen errua handiagoa baita. Erabaki politikoa denez geroz, populuen aurkakoa da eta zapalkuntzaren aldekoa, hain zuzen, askatasunaren aurkakoa. Hau da ezker eta eskuineko politika alderdien jarrera ofiziala (nahiz izkutatuta nahi). Horregatik nabari dira bi gauza: Euskal politikaz alderdien beharra, alderdi horik sendotu behar direla, populuan sartu eta minoria guztien borrokaren berezitasuna: inperialistengandik nahi dugula geure buruaren jabe.

HERRIAK ARGITU, HERRIEN ELKARTASUNA SENDOTU

Argi eta garbi dago, faxismoa goitidoan une honetan, sasi demokrazien benetako aurpegia agertzen zaigunontan nolabait herriak argitu behar direla. Kontzientziapen lana guztiz beharrezkoa da, era guztietara.

Bigarren behar mintsua, deritzogu, herri zapalduen arteko internazionalismoa sakontzea eta sendotzea dela. Ingurumen berriari erantzun berriak batipat internazional mailarako.

M. L. Uhaitze

ZIAZ

ZIENTZIA SOZIALEN EUSKAL ALDIZKARIA

(Bi hilabetetik behin plaza-
ratuko da)

Zuzendari: Antton Ibarguren,
jurista.

Idazkari: Karmelo Arroiabe,
soziologoa.

Hirugarren zenbakiaren
gai nagusia:

U.E.U.-77

J. M. Larrazabal: *E. U. ranzko bidean, U.E.U. bidegidari.*

J. Apalategi: *Euskal nazional arazoaz.*

A. Ibarguren: *Langile erakundeak eta alderdi politikoak.*

J. M. Odriozola: *Lenin eta Estatua.*

J. A. Agirre: *Historiaren kontzeptuaz.*

K. Larrañaga: *Historiaren irakaskuntza; E.G.B.*

J. Sudupe: *Dialektikaren oinarritzko lege batzu.*

Salneurria: Ale bakoitza,
150 pta.

Urteko harpidetza (sei ale),
750 pta.

Zabaltzaile: J. F. Jaka
(BILINTX liburudenda).
Fermín Calbetón, 30
DONOSTIA. Tel:
(943) 42 09 30.

"HARKI"RIK EZ

Irakurleak ere entzuna duke jadanik azkeneko manifestazioetan: "*indár erré-presí-boák, á-púr-tú*". Edozein egunetan, edozein lekutan, taldeak pilatu eta lelo bera errepikatzen da.

Eta leloaren oihartzunak, dirudienez, Madrilleraino heldu bide dira. Eta "soluzioa" ere ba bide dute; eta aipatzen hasia da gure artean.

Zein ote da, bada, gure jendeen asalduak, gorrotoak eta herrak ematuko omen litzuzkeen mirari hori? Hauxe, omen: orain arteko politziaren orde, gure kale eta enparantza nahasietara "*hertzaina*" ateratzea, euskal (edo euzko bederen) politzia bidaltzea; gisen eta berdeen orde, "*mikelete*"z edo "*miñonez* jantzitako zaindaria agetzea. Eta kitto: indar "*errepresibo*"-rik ez, itxura denez.

Gero eta maizago eta lotsagabekia gu erabiltzen da jokabide berbera gu loakartzeko. Diputazioak, esate baterako, oraindik frankismoaren garaiko gizon *berberak* osaturik ere, bapatean "*foral*" bihurtu zaizkigu... Mirariaren harrigarria!

Hiru probintzi "*vascongado*"etako "*Consejo*" delakoa, era berean, "*vasco*" bataiatu dute; eta euskaldundurik eta abertzaleturik gertatu bide da kolpez. Mirakuilu hutsez, berriz ere; zer esanik ez!

Gauza bera unibertsitateaz: bere fakultateetako irakasleetan beretan ere lehengo bertsua izanagatik ere (eta Nafarroa gabe), "*Vasco*" bataiatu dute; eta kitto. Ba omen diagu geure unibertsitatea...

Ez gara Euskal Herrian bizi, mutilak, Fatima betean baizik!

Guk, zozook, geure xerukerian, besterik behar zela uste genuen. Gure diputazioak "*foral*" deitu ahal izateko, FORUAREN ARABERAKO LEGETASUNAREN ZERBITZUTAN jokatu behar zutela, esate baterako... Ez, ordea! "*Foral*" hitza etxaurreetako atalburuan erastea aski zen! Eta gu ez ginen orain arte konturatu. Errazagoririk...!

Gauza bera PSOE delakoa euskalduntzeko: "*de Euzkadi*" hitza erantsi, eta horra hor gure herriak behar zuen alderdi sozialista eta euskalduna. Sekula santan euskaltasunaz arduratu ez diren horietzek, behingoz "*abertzale*" (sic) bihurturik.

Elebitasunaz ere, gauza bera: "*bilin-güismo*" hitza esan noizean behin, erdaraz barra barra segi, eta akabo: diglosiarik ez Euskal Herrian; eta hizkuntz-arazoak ere, mirakuiluz, bapatean konponduta.

Ez dira hauek txorakeriak edo gehiegikeriak. Ez. "*Semantika*" kontua omen da euskal arazoa: hitz hauxe erabili du buruzagi horietako batek. Eta, horrela, gaur "*Gora Euskadi Askatuta*" esan dezakete denek, lasai, baita etsairik nabarmenenek ere ("*tenemos otro concepto del aberchalismo, puro problema de semántica*"...). Bapo! Ederki ari gaituk!

Eta orain, hori guztia ikusita, bide beretik konpondu nahi dute manifestazioen eta kale-zanpaketen arazoa.

Jaen, Murcia eta Guadalajara-ko "*grisak*" hemendik aterako bide dituzte; eta, beroien truke, txapelaz eta mendigoizale galtzaz jantzirik, Zizurkil, Obanos eta Errigoiti-ko "*urdinak*" jarriko bide dizkigute. Egurra, horrela, geureek emango digute, galanki; baina... euzkotarki ere bai. Eta, noski, horretara izatera, indar "*errepresibo*"-rik ez gurean.

Zeren-eta nola izan ote dakioge zanpatzaile inori Beasain-go morroko sendoa edo lurtzango sudurluzea? "*Ertzaña*" bataiatuko bide dituzte delakook ('H' gabe hobe, jakina). Eta istilu-iturri bat gutxiago...

Zanpatzaile, ordea, ez dira, izan, grisak berak; manifestari abertzaleen kontra joan erazten dituen politik-egoera eta SISTEMA baizik.

Fazismoak emandako egitura hein batez ongi atxikitzen duen sistema horren zerbitzutan eraiki litekeen "*ertzaña*" (diputazioak eta udalak lekuko), ez litzateke gurea izango; gure kontra-koa baizik.

Euskal legetasunaren zerbitzutan ez legokeen "*ertzaña*" (eta gaur ez dago hemen euskal legetasunik, eta ez horrelakorik ezer), "*harki*" erakundea litzateke; ez Euskal Herriaren zaindari erakundea. "*Harki*" diot; Arjelian frantsesek indarrean onar-erazitako legetasun haren zerbitzutan hautatu ziren "*bons algériens*" haien politzia, HARKI-multzoa izan zen bezalatsu.

Ez gara gu ameslariak. Gure herrian, ba dakigu, beste non-nahi bezala, HERTZAINZA ere beharko dugu. Baina, otoi: hertzaintza horrek, gure izango bada, *gure legetasuna* behar du gerizatu eta zaindu; eta ez, alderantziz, euskal legetasun horren *alde* borrokan kalera irteten diren ABERTZALEAK zafratu eta txikitu.

Ondo jaiok ginatete!

Txillardegí

EUSKAL ERREFUXIATUAK IPAR EUSKADIN OSO GAIZKI

ESPAINOL BEZALA KONTSIDERATUAK (1)

300 errefuxiatu bizi dira edo gaizki bizi dira, Ipar Euskadin. Frantses eta etorkin askok espainolTZAT hartzen ditu. Elkarrizketa bat egin dugu laurekin. Beren egoera latza eta barrigarria agertu digute. Hogeitazazpi errefuxiatu residentzia kartarik gabe oraindik, duten probisionaltasunarekin beldurtuta daude.

Joxeanek esandako esaldi batetan bil daiteke horien asmo, bizitza, eta izaera guztia: "Nabiago nitek baratzuri zopa bat Hego Euskadin jan, txuleta eder bat Ipar Euskadin baino".



300 errefuxiatu bizi dira Ipar Euskal Herrian.

LAU ERREFUXIATUREKIN ELKARRIZKETA

ANAIA-ARTEAn bildu naiz lau errefuxiaturekin. Igandea da. Donibane Lohitzuneko kaleetan jende gutti dabil. Eguraldi ederra dugu eguerdi honetan.

Mahai huts bat eta ohe bat bazterrean. Mahaiaren inguruan lau errefuxiatu, hiru mutil eta neska. Hau da gure gela hutsaren bizitasuna elkarrizketan.

Ez didate beren izenik esan nahi, eta izen faltsuak ipintzen ditut erreportaian.

Oso gazte normalak dirudite. Bi mutil gazteenek estudiante formal batzuren antza dute, eta neskak maistra *progre* batena. Baina errefuxiatuk dira, eta hitz horrek esankizun berezi bat dakar burura, egoera berezi bat ere bai.

Juantsok bost hilabete daramatza Ipar Euskadin, eta idealismoari dario haren hogeitahiru urteetatik. Pellok adin berdintsua du eta

atzerrian urte bat daramanaren isiltasuna du. Joxeanek, berriz, bost urtetan ez da Ipar Euskaditik inora mugitu, eta ezkondurik dago. Bere barren indarrari ezin dio eutsi eta hizketa gogorra du. Maitek ere denbora luzea darama atzerrian.

Ipar Euskadi errefuxiatuentzat atzerria dela esan baitezakegu, nazionalista puristak ados ez baldin badaude ere. Errefuxiatu gehienek ez baitute hor egon nahi, beren etxeetan baizik, kaleko bizitza jatorra eginez, eta ez Ipar Euskadiko frantses gizartean. Han ere badira abertzaleak eta euskalzaleak, baina guttienak. Eta ikurriña kalean ikustea ez da Euskadi izatea.

Gainera, errefuxiatuak getho baten modura bizi dira: frantses gendarmeen zirikazioa, frantsesen hoztasuna. Horik min egiten dute euskal iraultzaileen bihotzetan.

Eta mesedez! Ahantz dezagun hego Euskadikoek, Ipar Euskadiri buruz dugun folkloreria, eta errefuxiatuengan dugun iritzi faltsua eta hipokrita. Gaizki bizi dira, eta ez dute gure konpasiorik behar, zinezko laguntasuna baizik. Arropak eta janariak bidaliz ez dugu kontzientziaren bakea bilatu behar.

“Hobe da baratzuri zopa bat han (Hego Euskadin), txuleta bat hemen baino”, esan dit Joxeanek. Honekin dena esana dago. Eta 300 euskal errefuxiatu daude alde honetako baratzuri zopa jan nahiez.

Lehenbiziko galdera Juantxori egin diot. Bere azken eguna Hego Euskadin nola izan zen galdetzen diot, zer sentitu zuen, zer pentsatu, nor azkenagurtu.

Juantxo.—“Nire azken eguna oso normala izan zen. Ez nuen inor agurtu. Egun osoan beti bezala lan egin nuen, bakarrik, egin behar nuena egin aurretik banuen halako kezka bat, ongi ala gaizki atera zitekeela, baina besterik ez”

Muga pasatzerakoan ez nitzen deustaz ohartzen, ez nuen deus sentitzen. Ez dakit beldurra zen ala zer, edo beldurrak erreprimitzen zaituela. Eta muga pasatu ondoren, ia Ipar Euskadin nengoenean, hotz eta apatiko bezala aurkitzen nintzen. Han zaudenean uste duzu, honera aleigatzen zarenean saltoka eta poteka eta oihuka hasiko zarela pozik, baina ez zitzaidan horrela gertatu. Dena normal, dena apatiko.

Azken gauza ikusi nuena nire herria izan zen. Orduan konturatu nintzen oso urruti zegoela nigandik,eta hain euskaldun da gainera!



Jende askorentzat gu espainol batzu besterik ez gara.

Baina ez zidan inork azken adiorik egin, eta bakarrik (gidari batekin) pasatu nintzen alde honetara. Orduan, gainera, ez nintzen inortaz oroitzen, beno, bai, gartzelan gelditu zen lagun hartaz oroitu nintzen. Hori, Hori! Beretaz asko oroitzen nitzen momentu haietan, zeren nirekin batera ederki etor baizitekeen, poliziak harrapa ez balu. Eta ie hemen nengoenez gero, gurasoak edo lagunak ez nituen gogotan lagun gartzelaratu hori baizik. Erdi “grog” nengoen. Azken gaua ikuilu batetan pasatu nuen. Hemen gendarmeak ikusi nituenean lehen aldiz, beldurra eman zidaten, eski-batzen nituen. Beste errefuxiatuek animatzen ninduten, giro bero eta lagunkor sortzen zidaten, eta nik ezin nuen deus esplikatuz, grogi bainengoen. Giro arrotza baitzen.

Biarritzera goizean heldu eta arratsaldean aita etorri zitzaidan eta ez nenkien zer esan, pozik nintzen baina ez nuen hitzik harentzak.


Hemengo errefuxiatuen hizketa gaia puteatuta daudela, nagusiek puteatuta dauzkatala, beste edonork bezala lan egiten dutela eta ez dutela ezertarako eskubiderik, esplotaturik daudela beren herrian herri arrotz honetan. Hego Euskadin eritzi faltsua dute errefuxiatuaren bizitzaz eta egoeraz.

Juantxo.—“Ados naiz zurekin, baina gauza konplikatu da. Prentsa publizitatearen menpean dago, eta gobernupean noski. Ikusi behar da ezin dutela nahi bezala gauzak esan”.

Nire bizitza normalizatuz noa, baina kostatzen zait. Denok bezala niare krisisiak baditut eta gogorrak dira. Pertsona moduan jota gelditzen zara askotan, baina gure kezka Euskal Herriraren egoera politikoa da, eta prentsa irakurtzen baldin badugu ere, hustasun bat edo urrutitasun bat sentitzen dugu. Han egon nahi nuke, ez hemen. Pentsatzen duzu, zortzietan poteoa bukatuz gero kaleetan inor ez dabilean, Hego Euskadin mundu guztia kalean ederki dabilela, eta hain distantzia gutxira egon arren, ezin duzula horrelakorik egin edo hara joan. Horrek tristatzen zaitu. Gainera, ez da euskararik egiten, eta arrotz zara”.

“ASKORENTZAT ESPAINOLAK GARA”

Joxean.—“Juantxok esan duenari esan duenari sarrera gisa eginez, kontutan ukan behar dugu, kostaldean (Endaia, Biarritz, Donibane Lohitzun, Baiona) oso kontserbadora dela jendea, eta eskuindarrei botua ematen diela. Gainera, etorkin espainol, frantses, portugaldar asko da eta guzti horientzat gu eta



Sekula ez da bukatzen martxa hau.

euskal problema oso marginaturik dago. Honi erantsi behar zaio euskara galdurik dela, eta jende askorentzat gu *español* batzu besterik ez gara, limosna eta bizibidea eskatzera etorri garen batzu. Uste dute ez dugula protestatzeko eskubiderik, nola eta hemen bizitzen utzi gaituzten. Gure problema latza da. Marginaturik gaude. Handik hona etorri gara, utzi ditugu gure herriko gauzak eta familiak, eta hemen marginatuta gaude: ez dugu harremanik, gure artean biltzen gara betiko bostak eta beti kontu berdinak elkarrizketarako. Hango debate politikoetatik kanpo. Han mendira joaten ginen, eta hemen nola joango gara. Bai, ba da mendirik, baina zer, beti berberak joan behar? Hori ezin da, gu ere pertsonak gara eta giroz eta lagunez aldatzea gustatzen zaigu. Horregatik, erradikalizatzen gara, zulo txiki batetik begiratu beharra dugulako.

Gure zilbor hestea beste aldeekin prentsa eta irratia da, baina komunikabideak ez dira objektiboak, mediatizaturik daude. Euskal bi aldizkari eta egunkariren bat dira hoberenak, baina hauek ere partzialak dira, horrena EGIN, Punto y Hora, eta Zeruko Argia.... zeren gauza batetan ados badaude ere... konprenitzen dut gobernuak ipintzen duen mugaketa, baina, en fin...".

Joxean.— “Baina informazio bat eman behar baldin badute, osorik eman dezaten eta ez erdizka. Horretarako deus ez hobe da”.

“EZ DIGUTE ERREFUXIATU KARTARIK EMATEN”

Ipar Euskadira errefuxiatu bat etortzen denean, frantses paperak egin behar ditu, bertan bizitzeko edo gendarmeak baketan utz dezaten. Prozesu legala nola den galdetzen diot.

Pello.— “Orain, hogeitazazpi errefuxiatuek duten problemari lotuko natzaio. Ni horien artean nago. OFPRari errefuxiatu karta eskatu genion ihazko abuztuan, erakunde honek ematen baititu. Teorikoki, ez dago frantses gobernuaren eskuetan, baina Barne Arazoetako ministeritzarekin bat eginik da, oso elkaturik, errefuxiatu politikoen eta apatriden alde izan beharrean. Eta oraindik ez digute eman.

Beno, paperak eskatzeko prozesua horrela da: gu ANAIA—ARTEAra joaten gara eta erakunde humanitario honek instancia bat prestatzen jasotzeak hiruren bat hilabete irauten du. Eskaria egiten dugun denbora berean, gendarmeengana joan behar dugu. Horiek interrogatorio txiki bat egiten digute, eta nola pasatu dugun muga galdetzen digute. Guk, beti mendi-

tik egin dugula esaten diegu, eta nondik ez dakigula, nola eta parajeak ez ditugun ezagutzen. Ba, interrogatorioa oso normala da. Gendarme bat mahai atzean jartzen zaizu, eta kondatzen hasteko esaten dizu. Hori bai, “gendarmeok ez gara espainol polizia bezala, guri elkarrizketa gitea gustatzen zaigu” esaten dizu, eta oso demokratiko eta baketsu aritzen zaizu. Gero foto bi ateratzen dizkizute, fitxatzeko egiten den bezala, kinkien antzekoa. Zergatik pasatu zaren Frantziara galdetzen dizute eta guk beti arraozi politikoak ematen ditugu.

Orduan, gendarme honek hila-bete batetan zirkulatzeko baimen bat ematen dizu. Karnet bat da. Batzutan hamabost egunetarako bakarrik ematen dute. Gero, karne-ta aldiero berri behar komisalgian.

Hogeitazazpioi pasatu zitzaiguna izan zen, OFPRarengandik eskutitz bat hartu genuela, froga gehiago behar zituztelako (froga politiko gehiago) karta hori eman ziezaguten”.

Momentu honetan, pertsona bat sartzen da elkarrikuska egiten ari garen gelan eta, ni hor naizenik ohartu gabe, jende berri gehiago etorri dela esaten du. Errefuxiatu gehiago etorri dela Hego Euskaditik igande horretan.

Sekulan ez da bukatzen martxa hau.

Pello.— “Hori jakin ondoren, erre-kurtso batzuk egin genituen, eta aurtengo urtarrilerako jakin behar genuen erantzuna, baina que va!. Oraindik deus ez dugu, eta arrisku latzean aurkitzen gara. Gainera, judizio txiki bat bezala ere egin behar digute, eta ezta hori ere! Etz OFPRaren eritzia azkena da, ezir alda daiteke. Horregatik, kartarik ez badugu mugan jarriko gaituzte”.

Juantxo.— “Ba, aurreko egunean monsieur Navarrok, komisariak esan zidan, erakunde horrek ez duela kartarik behiago emanen”

Horrela daude euskal errefuxiatuak Ipar Euskadin, Frantses lurraldean. Horien egoera oso larria da.

Hurrengo alean, argitaratuko dugu bigarren eta azken zatia.

MILA KONTU

TARRADELLASEN SALTSA:
NOR OILO ETA NOR ARRAULTZA?

Tarradellas eta Leizaola eta PNV eta PSOE, hona hemen lau elementu algebra ekuazio erraz bat egiteko. Ekuazio erraza izango da baina soluzio bidea zaila, inkognitak falta baitira. Eta inkognitarik gabe ez da ekuazio logikorik.

Tarradellas jauna beti bazterrak nahasten ari da. Hori bai dela saltseroa! "Inspirazio real" eko elkar hizketa ukan ondoren Leizaolarekin, saltsa bipertsuak sortu dira PNVren eta PSOEn artean.

Zer zen lehendabizi: oiloa ala arraultzea? Nor zen lehendabizi jakin behar zuena Tarradellas- Leizaola arteko elkarriketa: Consejo General Vasco ala PNV?

Baina bai ongi dakiten PNVk eta PSOEek nola egin behar den roilo baten publizitatea! Prentsa guztia problematxo honi begira jarri da, eta atzetik (beharturik) euskal jendea.

Beti pentsatu dut, politikoak burua direla, prentsa gorputza eta herriko jendea isatsa. Hau da Euskal Herria den animalia, animalia oso normala itxura aldetik bederen. Baina barrenak bueltaturik dauzka, zoritxarrez, eta ez dute azalaren baretasuna erakusten.

Eta beste alde batetik, parakaidista frantsesak eta belgak Zairera joan dira "negritoak" hiltzera. Lehen misionatzera eta kolonizatzerara joan ziren bezala, orain hiltzera joan dira.

Eta zer galdu zaie frantsesei eta belgetarrei Zairen?

Europako Estatuak eta U.S.Ak badute esku-bide osoa jendea hiltzeko, eta bortizkeria egiteko, Baina nazionalitateetako "terroristak" ez. Hauk, desagerterazi behar diren lakrak dira, demokraziaren kontra doazelako, eta pertsona batzu hiltzen dituztelako, baina Estatuak milaka pertsona hil ditzakete, bortxakeriaz, eta ez dira lakrak. Interesak defendatzen baitituzte.

Gero, "negritoak" hiltzera doan parakaidistaren fotoa argitara ematen dute egunkari pazifikoeak. Gurasoak egurtzen ari den parakaidistaren fotoa eman zuen "El Pais" egunkariak. Baina hori ez da bortizkeria eta terrorismoa defendatzea eta gizentzea. Estatuaren biolentzia ez baita biolentzia, e politikoak? Hori ETarentzat uzten da.

Baina utz ditzagun kontu horik. Orain dela denbora gutxi, HASIk bere kongresua egin zuen. "Bolon bat eta bolon bi, bolon putzura erori, erori ez bazen erori, ez da geroztik ageri" dio nire amak kantatzen zuen kanta zahar batek. Eta kongresua egin baldin bazen egin, ez da batasunik ageri.

Batasuna birtute filosofikoa baita, ez iraultzailea.

IOSU ALEZURI



Tarradellas jauna beti bazterrak nahasten ari.





AGUSTIN IBARROLA PINTATZAILA IRUINEAN

Agustin Ibarrola pintatzaileak Iruinean agertu ditu bere koadroak. "30 urte Ibarrolaren pinturan" da erakusketaren izenburua, eta erakusketaren katalogoan lerro hauxe dago: "Agustin Ibarrola Bilbon jaio zen 1930.ean, eta langile baten semea da". Argi eta garbi gelditzen da pintatzaile honen bidea, esaldi horrekin. Ez du besterik behar.

Euskadiko Partidu Komunistan (PCE) lan egiten du, eta bere gain errepresio asko sufritu du. Berdin pasatu zaio bere pinturaren zentsurarekin.

1972ean, Iruinean egin ziren topaketen ondoretik ez zen berriz hona etorri, orain arte.

EGINek elkarrikuska bat egin zion, eta galdera bat hau zen: "badira pertsona batzuk, artea hemen, Euskadin eta Euskadiz eta Euskadirentzat izan behar duela pentsatzen dutenak". Eta Ibarrolak horrela erantzun zion galdera honi: "Ikuspegi herstu xamarra dela iduritzen zait. Nazionalista-burgues pentsamenduaren heredentzia da hori, eta gainera oso herstua, euskal kultur nazional baten barrutian".

Eta aurrerago jarraitzen du: "*Euskadi no es un islote. En este sentido también, dentro de la recuperación que se está llevando a cabo con el euskara, lo fundamental es qué es lo que se va a decir con el idioma, porque queremos que sirva para la resolución de nuestros problemas*".

Hona hemen, gutxienez pixka bat, Agustin Ibarrolaren pentsamendua, euskal kulturari buruz.

Iñaki Zabaleta

ORKOIENGO SENDAGILEA SEI KILOMETROTARA BIZI DA

Orkoiien Herrixka Nafarroan dago, Iruineko eskualdean. "Euskadiko askatasun ibilialdian" parte hartu zutenek ezagutuko dute, zeren jende asko bildu baitzen herrixka horretan Arazurira joateko.

Orkoiien herrixkan, Cendea de Olza Bailarako jendearen erdia bizi da eta ez dute sendagilerik. Tokatzen zaien sendagilea sei kilometrotara biza da, eta sendagileak esaten du, ez duela herrixka horretako bizilagunak bisitatzeko bekarrik. Nekazal sendagilea baita.

Gaurregun, sendagile hori bisita egitera etortzen denerako, Orkoiendarrek behegela bat prestaturik daukate. Baina behegela horrek ez du deus garantiarik, ez sanitate aldetik, ez lasaitasun aldetik.

Baina gauzarik kuriosoena hauxe da: sendagileak telefonoz pasatzen dituela errezetarik gehienak. Horrela oso ongi frogatzen da telefonoaren zerbitzua, baina ez sendagilearena. Hori ez baita medikuntza egitea.

Beste berri kurioso bat ere bada Barañaingo herrian. Herri honetako 1848 haurrek pediatra bat besterik ez dute. Garbi ikusten da ez dela aski.

Eta horrela dago Iruinea ondoko herrixken sanitatea eta zerbitzua. Komentarioak sobra dira.

Iñaki Zabaleta



Telefonozko diagnostikoak.

HIZTEGIA

Erakusketa: exposición

Elkar ikuska: interview

Topaketak: encuentros, rencontres

Ikuspegi: point de vue, punto de vista

Heredentzia: héritage

MEDIKUNTZ FAKULTATEKO EUSKARAREN IKASLEEN AGIRIA

klaseak prestatzeko behar izaten den denbora, fakultatean egondako orduak eta abar kontutan hartu gabe, beste departamentuetan gertatzen den bezala.

— Beste alde batetik, euskaraz jabetzeko gauza asko behar dira: kurtsiloak, mintegiak, hitzaldiak, euskara ikasteko metodoak, mintegietarako liburuak... Horregatik, euskarari behar duen presupostua ematea exijitzen dugu.

— Euskarak duen statusa beste edozein aktibitatek duena izan behar dela pentsatuz, presupostuek antzerako kopurua izan beharko dute.

C) MATRIKULAREN OFIZIALTASUNARI BURUZ

Euskara matrikula ofizialean sartzea beharrezkotzat jotzen dugu, kurtsu bakoitzean asignatura aukeragarria bezala opatuz ikasleari. Honela, euskarazko ikasleak gehiagotuko dira eta euskarazko klaseak eskola orduetan eta programetan sartzeko garrantzia izango dute.

Euskarazko irakasleek Fakultateko klaustroan parte hartuko lukete, gaur eguneko egoera hobegotuz.

Euskara, ikasketa osoan, beste asignatura batek duen garrantziaz sartzeko, behar diren erabakiak hartu beharko dira.

D) DEPARTAMENTUEI BURUZ

Euskal Unibertsitate bat egiteko asmoz gaudez gero, gaur egun departamentuetan pauso hauk eman beharko lirateke:

D-1) Udaran euskarazko ikastaro batzua irakasleentzat antolatu. Honela, euskara departamentuetan sartuko da.

D-2) Kontratatzaren diren irakasle berriei, euskara ezagutzea kontutan hartu beharko zaie.

D-3) Euskara dakiten hainbeste pertsona daudela ikusirik, departamentu guztietan mintegiak euskaraz antolatu beharko dira.

Honez gainera, departamentu bakoitzeko lanak euskaraz eta erdaraz argitaratuko dira.

Asignatura bakoitzean azterketak eta mintegiak euskaraz zein erdaraz egingo dira, baina beti, eta urte batzua barru euskara lehendabiziko hizkuntza legez jarri.

Medikuntz Fakultateko euskarazko ikasleak

Honelatan ba, gure fakultatearekin nolabaiteko lotura duten erakunde guztiei zera eskatzen diegu, hemen egiten ditugun proposamenak praktikara eramantatzatela.

Medikuntz Fakultateko euskararen egoeraz oharturik eta hizkuntza honen berbiztea lortzeko asmoarekin, euskarazko irakasleek eta ikasleek batzarre batzua egin ditugu, erabaki hau onhartuz:

1) Hizkuntza berezi bat duen herrian lan egiten duen medikuarentzat, bere gaixoei harremanak izateko, hizkuntza hori ikastea beharrezkoa dela ikusirik, eta Euskadin ehuneko hogeita bostek euskara dakitela eta beste ehuneko askok euskararekiko oso jarrera ona dutela kontuan harturik, ezin dezakegu uler nola gure fakultateak irakasten diren medikuek ez duten euskaraz hitzik egiten ez eta hizkuntza hau ezagutzen.

2) Beste alde batetik, EUSKAL UNIBERTSITATE baten beharrezko konturatu eta gure medikuntz fakultatera begira, erraz ikus daiteke euskara ez dagoela ez ikasleentzat, ez aginte organoentzat behar den moduan bultzatuta. Gainera, horretarako dauden bide eta lanak, gaur egun, ez dira nahikoak.

Egoera honen aurrean eta irtenbide bezala, hau proposatzen dugu:

A) EUSKARAZKO DEPARTAMENTU BAT SORTZEA MEDIKUNTZ FAKULTATEAN

Bere egin beharrak hau izango lirateke:

A-1) Euskara irakasteko plangintza bat egitea; hau da, programak egin, euskarazko klaseak antolatu, metodoak aztertu, ebaluaketak, monitoreen koordinaketak, euskara programa orokorretan sartu...

Gaur egun, funtzio hauen arduradunak diren departamentu honetan sartuko lirateke.

A-2) Beste departamentuei eta lan-taldeei laguntza tekniko bat eskaintzea.

Euskaltzaindiarekin eta Euskal Filologiazko Fakultatearekin harremanak izanik, linguistika aldetik kontseiluak emango ditu, hiztegi teknikoak egin, testuak euskaratu eta, gainera, mintegiak, hitzaldiak eta abar euskaraz egingo ditu.

A-3) Hurrengo gai hauei buruz, hitzaldiak, mintegiak... antolatzea: elebitasuna, mediku eta gaixoen arteko harremanak, gaixoak hizkuntza aldetik dituen baldintzak...

A-4) Euskal kultura goimalaratzeko lan taldeak, mintegiak eta abar sortzea.

B) PRESUPUESTOARI BURUZ

— Argi dago azken urteotan euskarari dagokion presupuestoarekin bakarrik egin dela euskarazko irakasleek euren ikasleei emandako klaseak ordaindu,

JOSE ANTONIO AGIRRE- REN OMENALDIA DELA ETA

Jose Antonio Agirre Lekube Euzkadiko lehen lehendakaria izan zen, histori une latz eta gogorretan gure nazioaren buruzagitza bere eskuetan eduki eta zintzoki eroaten jakin zuena. Zuzentza maite eta gaiztakeriari gorroto ziolako, herbestean hil zen gure lehendakaria. Hark utzitako zuloa oso larria izan zen euskal politikan, beraren pareko gizonik ez baita erraz aurkitzen bazterretan. Faxismoaren denboran ixilerazia eta madarikatua izan zenak, orain, Herriagandik omenaldi bat ongi merezia zuen, bai horixe. Eta horrexegatik Jose Antonio Agirrerri Getxon, maiatzaren 7an gorazarre bat egitea, alde guztietatik ideia ezin hobea zen.

Agirre, bestalde, PNVkoa zen. Bidezkoa zirudien, hortaz, beraren alderkideek omenaldi horretan interesatuenak izateak. Omenaldia, dena den, alderdi konkretu batetako gizontzat barik, Euzkadiko lehen lehendakaria izan zen aldetik eskaini zitzaien, noski. Eta gauzak horrela, ez dirudi hain ondo, gure ustez behintzat, Euskal Herri osoaren partaidetasunaz egin beharko zen omenaldi nazionala, alderdi batek, PNVek, monopolizatzeak. Izan ere, ANVek eskaini zion laguntza ukatu eta Agirrerren omenaldian PNVren irudi eta sinbolo bakarrik azaltzea, alderdikeria nabaria izan zen, euskaldun Herriari eta Euskal Gobernuko beste alderdiei egindako deskortesia barka ezinezkoa.

Ihazko hauteskundeetan agertu zuten lema haren bidetik abiatuz (*Euzkadi gurea da*), PNVkoek egiaz Euzkadi, Agirre, gudariak eta Euskal Nazioa, oso osorik, berenak direla sinesten dutela ematen du, eta hola ulertu beharko liriateke, noski, gudariaren omenaldi partidistak, hertzain propioak, etab.



J. A. Agirre, euskaldun guztion lehendakaria

Nazio-exentziaren ALDERDI horrek, halaber, Euskal Herriko kultur eta politik erakundeetan (Alfabetatze kanpaina, ikastola, udaletxe, etab.) aritzen diren beste aukera politikotako euskaldun guztiak, ezker abertzaleak bereziki, infiltratu eta kontrol-gurakotzat jotzen eta salatzen ditu hor zehar, beraiak nagusi direnoko tokiak, aldiz, "normal"tzat harturik. Nazional eksklusibismo horrek jadanik oso itxura txarra du eta are bide okerragoetatik joan daiteke oraindik.

Euskaltzaletasuna, euskal kultura, abertzaletasuna, euskal sinbologia eta euskalduntasun osoa alderdi konkretu batekin identifikatu nahiak balio horien desnazionalitzea dakar ondoan, alderdikeriazkotzat jota. Gogoan dauzkagu oraindik atzoko (eta gaurko) frankisten esanak, hots, eskuindar, frankista eta katolikoa ez zena ez zela egiazko espainola.

Euskaldunoi benetan komeni zaiguna zer da? Euskal Herriko hizkuntz, kultur eta nazio ondareak bertoko jende guztiak, alderdi guztiek, beren jabegotzat hartu eta defendatzea, ala euskaltzaletasuna alderdi konkretu baten (edo batzuren) bandera eksklusiboa izatea? Pluralismoa, bestalde, hitzetan barik eginetan frogatzen baita. PNVko batzuk, honetaz, serio kiango pentsatu beharko lukete.

Xabier Armendaritz

"LA COCINA VASCA"

Atera berria du Caja de Ahorros Municipal de Bilbao'k "La cocina Vasca liburu". Anaitasunako sukaldari edo gatzemaile nagusiak dioskunez, liburu hau zenbait kasutan delizia bat dateke bertan proposatzen diren jateko asko dastatzen baldin bada. Hala ere "On Egin" ek dioskunez (guk idazle sofistika-tuok ez omen dakigu gauza horietaz gehiegi) Ez du berak bere amona sekula santan txipiroiak hiru orduz egosten uzten ikusi. On Egin jaunari ez zaio bidezko iruditzen hain denbora luzez txipiroiak egostea ea bestaldeko errezeta hori euskaraz edo eta frantsesez zegoen galdetu du hain akats handi horren arrazoa bilatu nahiez. Dena den, liburua- ren egileak buruntzalia ederki sartu duela uste dugu eta txarrena zera da, ateratzekotan txipiroiak atera beharrean akarren kanikak aterako dituelakoan gaude. Seguru!.

Bestaldez, satsaren saltsaz politika berezi bat salteiatzen du Busca Isusi jaunaren hitzaurrea duen liburu horrek. Eta azken hau ez zaigu hain deliziosa iruditu, zeren baitirudi Erronkaritarrek eta Otsagiko dantzariak bertoko jaietan "espainolen modura jazten diren bitartean" Santa Engraziko zuberotarrek "frantsesen modura" egiten baitute. Liburuan antzeko perla asko ikus daiteke, dena erdara baturu eta zoragarrian zehatzago izateko, espainol mentalitatez osaturiko liburu dohain honek saltsak oso ongi lotzen dakiela erakutsi digu. Beste batek zioenez " en defensa de la cultura de nuestro pueblo"... que coño!.

KONSTITUZIOARI BEGIRA

Euskal Herriko udaletxeak konstituzioa onhartzeko ala ez, egingo den erreferendumaren izen zerrendak ateratzen ari dira agirian. Orain arte boturik eman ez baduzu, ala eman baduzu komeni zaizu zure izena zerrendan dagoen ala ez jakitea. Horretarako zure udaletxeko edo zure hiriko "Junta electoral del censo"ra joan behar duzu. Konstituzio espainolak ezetz biribil bat merezi baitu. Bete itzazu beraz zeure ahaleginak.

NAVARRA SOLA O CON LECHE

Titulu honekin Nafarroako herri askotan egiten ari den teatro saio bat duzue hori. Nafarroak Euzkadirekin batera joan behar duela erakutsi nahi du. Horretarako, sozialista bat, abertzale bat, UCDko bat eta Erriberako nekazari bat hizketan hasten dira. Dikotomia berehala etorri zitzaigun burura. Zergatik sozialista eta abertzalea? Estrainioena zera agertzen zaigu: Sozialista abertzalea da eta abertzalea ere sozialista. Dударik gabe PSOeri galdetu egin beharko zaio. Beste alde batetik Erriberan egia edo ona izan daitekeena ez da halabeharrez Nafarroa osoan izan behar. Erribera oso desnazionalizaturik egongo da baina Erriberako egoera ez da Nafarroa osoarena. Hortaz konturatu nahi izan beharko ziratekeen, Euskalduna ez dela bakarrik Ataungoa edo Igorrekoa, Koino!.

konstituzio projektuaren analisiak (3)

5. GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA

95garren artikuluan ba dago oharraztea merezi duen lerroalde bat. Zera dio berak: "El Gobierno dirige la política, la administración civil y militar..." Nola uztar daiteke hau 10. artikuluan indar harmatuei eman zaien nagusitasunaz?

Gobernuaren presidentea izendatzeko Bonn-eko Oinharrizko Legearen 65. artikulua ia hitzez hitz kopiatu da. Gobernuaren presidentea erregeak izendatzen badu ere ez dugu uste gehiengoaren alderdiak erabakitako huraxe ez beste inor izendatzeko posibilitaterik duenik.

101. artikulua —administrazioaren alorrean— administrazioaren inguruko organoak kreetzeaz hitz egitean lurralde autonomoak ez ditu ezertarako ere kontutan hartzen.

Alkateak hautatzeko sistema, alternatiboa da: herri-tarrek nahiz zinegotziek hautatuko dute, baina guztiau balio gabe geratuko da Udal Hauteskundeetarako Legea onhartua delako. Eta Lege horren arauera alkatea zinegotziek hautatu behar dute (oker ez banago) gehiengo osoaren baietzaz. Eta gehiengo oso hori lortuko ez balitz, botu gehien lortu duen zinegotzia hautatuko litzateke.

6. BOTERE JUDIZIALA

115garren artikulua oso zalantzarria da. Zera dio: "Los ciudadanos participarán en la administración de la justicia en los casos y formas que la ley establezca". Egia esan, Errepublikaren konstituzioko 103. artikulua hori baino askoz ere argiago zen, Epaimahaia onhartzen baizituen.

7. EKONOMIA ETA HAZIENDA

Lurralde Autonomoetaz ihardutean aztertuko dugu puntu hau.

8. LURRALDE AUTONOMOAK

Lan guztian zehar esaten dihardugarren, euskal prozesu politikoan konstituzioak ukango duen eragipe-



na haundia izango dela esatea komeni da berriro ere. Eragipena, ez haundia bakarrik, baizik eta osoa, guztizkoa ere bai.

Ikustea baino ez dago: Euskadirentzako, edo agian Vascongadentzako autonomia zehazki adierazita dago konstituzioan. Eta konstituzioak ematen duena baino autonomia gehiago lortzea oso zaila izanen da, konstituzio beraren aldaketa bat tarteko ez bada behintzat, konstituzioa izanen baita Estatu Espainoleko legearen azalpen nagusia.

Geroago aztertuko dugu konstituzioaren erreformarako aurrikusten den sistema, eta erreforma hau egiteko bete behar den baldintza pila ere ikusiko dugu.

Guztionekin behin eta berriro azpimarratu nahi dugu konstituzioak duen inportantzia kontzientziatu beharra dugula. Eta bide batez, konstituzioa dela eta, burruka egiteko plangintza oso bat pentsatu beharrean garela. Hutsik egiteko beldurrik gabe esan daiteke konstituzioa une honetan, hauteskundeak, autonomi estatutua edo Udal Hauteskundeak berak baino ere garrantzitsuagoa dugula.

Horregatik behar beharrezkoa egiten zaigu basea eta herria kontzientzaraztea, euskal populuaren ahalik zatirik haundienak, Konstituzioa argi eta garbi errefusatzeko duela adierazi behar du eta.

Eta ondoren ikus dezagun zertan den konstituzio proiektuak lurralde autonomoei eskaintzen dien titulua.

Lehen lehenikesan beharrezkoa zera da: euskaldunon, edo katalanen edo galegoen autonomia eta Andalusiakoa edo Extremadurakoa etab. maila berdinean jartzeaz guztiz errefusagarria dela, lehen hiru herrien nazio ezaugarria besteena baino argiagoa eta nabarmenagoa delako. Honekin ez dugu Andalusiaren edo Extremaduraren nazio nortasuna ukatu nahi, baina bai beste hirurena baino ahulagoa dela esan. Bestalde konstituzioak ez du lurralde autonomorik osatzen ez duten probintzietaz deusik ere esten, baina senatuaren konposaketaz mintzatzean probintzia hauk lurralde autonomoetakoen parean jartzen dira. 59. arau iraunkorrean irakur daitezkeenez.

Hildo beretik segituz, zetako aipatzen dira 2. artikuluan "nazionalitate" eta "erregioak" ondoren praxian maila berdinean edo probintzia hutsen mailan jarri behar badira.

Eta problema ez da non kopiaturik ez egotea. Ba da non ikasi franko federazioaren eta autonomiaren eta erregioaren eta abarren arteko diferentzia. Baina agian gure konstituzio mutilek lausoturik ditugu. 1936.eko sobietar konstituzioak ederki bereizten zituen Errepublikak Federatuak, Errepublika Autonomoak, Erregio Autonomoak eta Barruti Nazionalak.

Konstituzio proiektuak Lurralde Autonomoei —hala deitzen baititu— 22 artikulua ematen dizkie, hau da 128.etik 149.erarterakoak, biak barruan direla. Eskutadaxo bat autonomia emateko zertan enplegatuko horrenbeste artikulua pila?

Eta noski, testu osoan ez duzu burujabetzarako eskubideaz hitz erdi ere aurkituko. autonomi eskubidea besterik ez da aipatzen.

Autonomi prozesuari ekiteko eskubidea, baldintza gogor batzue gabe ezin daiteke egin. Eta lehena honako hau da: autonomigai den lurralde eremuan hiritik bi udaletzek egin beharko dute eskaria, eta gainera udaletxe horietako jendetza zentsuak beti eman beharko du lurralde eremuko jendetzaren gehiengo osoa. Eta gainera baldintzok probintziaz probintzia bete beharko dira.

Halabaina hirugarren arau iraunkorraren arauera Vascongadei eta autonomiaurrekoa lortu duten beste lurraldeei autonomi ekimena jadanik jarrita dauden erakunde preautonomikoei dagokie. Nolanahi ere, eskatzen diren baldintzak 1931.eko errepublikaren konstituzioarenak baino hestugakoak dira.

Madriko Gobernuaren, edo hobeki esan, konstituziogileen asmoak ulertzeko 130. artikulua da aparta ona. Artikulu horren arauera, Lurralde Autonomoen artean edozein laguntza moeta antolatzeke Gorteen baimena behar da. Eta baimen hori lege organiko baten bidez datorke, hau da, gehiengo osoz Madriko onhartutako lege baten bidez.

Estatutua onartzeko sistema 131garren artikuluan dator. Hona hemen bera:

1. Estatutu proiektua laboratzeko Lurralde Autonomoko Parlamentarien Biltzarrea egiten da. (Absurdu bat dirudi autonomiarako ekimena udaletxeen eskutan egotea eta estatutuaren erredakzioa parlamentarien biltzarrenarenean).

2. Proiektua onhartuz gero (gehiengo osoz gainera) kongresuko konstituzio batzordeari igorriko zaio. Batzorde horrek lurralde autonomoko biltzarren ordezkaritza baten laguntzarekin erredakzioa aztertuko du. Horretarako bi hilabetetako epe bat du. Azkenik, behin betiko erredakzioa moldatuko da.

Baina orain dator gauza kurios bat. Laugarren arau iragankorrek zera dio: "Cuando se remitieren a la comisión constitucional del congreso varios proyectos de estatuto se dictaminarán por el orden de entrada en aquel y el plazo de dos meses a que se refiere el art. 131-2.º *empezará a contar desde que la comisión termine el estudio del proyecto o proyectos de que sucesivamente haya conocido*".

Ikus daitezkeenez, bi fase edo jartzen dira. Lehen fasea estudiantzeko da, eta ez du eperik, beraz komeni ez diren proiektuak sutara ere bota daitezke, eta bigarrena erabakitakoa da; eta horretarako bi hilabete daude.

3. Bi batzordeak akordio batetara heldu ondoren, heldu badira, proiektua, berari dagokion lurraldean, erreferendum bidez, botatu egingo da.

4. Erreferenduma onhartuz gero testua Gorteetara eramango da, eta bi Ganbarek, bil daitezeneko bilera batetan, berretsi egingo dute.

5. Gorteek berretsi ondoren Erregeak onhartu egingo du eta lege gisa aldarrikatu.

3garren puntuan bi batzordeak —lurralde autonomoko parlamentariak eta konstituzioarenak— akordiorik lortuko ez balute, estatutu proiektua Gorteetara eramango da lege proiektu gisa eta proiektu hau Gorteetan onhar daiteke, ala onhartu gabe gera. Onhartua izango balitz, aurreko kasuan ikusi dugun bide berari lotuko litzaioke.

Estatutuaren edozein erreformak, onartzeko, egin duen bide bera berregin beharko du. Eta erreforma lurralde eremuaren mugetaz balitz, prozesuak 129. artikuluan aurrikusten den eta goratxoago azertu dugun udaletxeen sistema egin beharko luke.

Lurralde autonomoen ahalmenetaz hitz egiten hasi baino lehen, interesgarria izanen da esan berri ditugunetaz iruzkinen bat edo beste egitea. Proiektuak dioenez, autonomiaren erakuntza instituzionala Biltzarre batetan, Gobernu Kontseilu batetan eta Presidente batengan oinharrituko da. Beraz, lurralde autonomoek judizial alorean ez dute botere izpino bat ere ukango, beste era batetara esanez, ez dugu justizia hauzitegi autonomorik ukango.



Parlamentuan ez dituzte Patxi Letamendiaren hitzak entzun nahi izan.

Indarrean egon zen 1936.eko estatutuak bere Euskal Hautitegia zuen. Oraingoan berriz ez dugu horrelakorik. Eta 1936.ekoa ukan ditugun artean gogoratuena delako aipatzen dugu.

Biziki kezkatzen gaituen beste puntu bat administrazioaren erakuntzari dagokiona da. Dirudienez ministratzen probintzietako ordezkariak (Haziendako, industriako, merkataritzako eta abarretako ordezkariak) zutik iraungo dute. Eta zer esanik ez gobernari zibiletaz (Guztionetaz ezer esaten ez bada ere, horixe ematen dute aditzera 101., 134., eta 142. artikuluek). Madrileko boterearen ordezkari guztiok koordinatzeko Gobernuak ordezkari bat izendatuko du. Eta haren lana estatuan zehar barreiatutako Gobernuaren boterea administrazio autonomikoarenez koordinatzea izanen da. Baina, erakunde autonomo berek ez ote dira ba, zer guzti horietarako gauza, Madrileko Gobernuak gainean ukan gabe ere?

Eta ondoren, konstituzioaren arauera nori ez dago ikusiko dugu. Esan beharrekoa da oinharri batzu



Konstituzioaren aurreproiektua prestatu duen komisia.
18. hor.

jarri direla hasiera hasieran, baina berehala mugatzen direla estatu zentralari dagozkion zereginak. Aurrena, oinharri jeneralak ikusiko ditugu, eta gero hauk apartatu ahala, lurralde autonomoei dagozkienaz. (Metodo honen arrazoia guztiz sinplea da: Estatuari dagozkion zereginak aztertu ondoren lurralde autonomoei geratzen zaizkienak hutsaren hurrengoak dira. Honela eginez paper mordoxka gordetzen dugu beste batetarako).

Oinharri orokorreki ekiten diegu, bada. 137garren artikulua arauera, konstituzioak estatuari espresuki ematen ez dizkion administrazio alorreko gauzak lurralde autonomoen kargu gera litezke, lurralde bakoitzeko estatutuaren arauera. Baina kontuz! Lurralde autonomoetako estatutuek espresuki jasotzen ez dituzten zereginak *beti* estatuaren zereginat joko dira.

Lurralde autonomoek hartzen dituzten zereginak, errepublikako konstituzioak eman zituen aldean oso kaxkarrak dira. Beraz, oraingoan ez dugu 1936.ekoaren parera ere sikiea helduko den estatuturik lortuko.

Lurralde autonomoei ematen dizkien zereginak alor hauetara mugatzen dira: nekazaritza, abeltzantza, oihar aberastasun, industria, barneko merkataritza, lurralde ordenamendu, hirigintza, etxagintza, kultura, kirol, turismo, joko eta ikusgarrietara, hezkuntzaren zati batetara, trenbide, garraio, obra publiko eta uraren eta argi indarraren probetxamendura.

Bi gaik merezi dute bereziki komentatzea: ordenu publikoa eta hezkuntzak, eta berauetaz ihardungo dugu orain.

Ordenu publikoaz, konstituzio proiektuak, bere 138. artikuluko 29. lerroaldean haxe dio zehatz-mehatz: "El orden público, sin perjuicio de la posibilidad de crear policías territoriales que *coadyuven* al sostenimiento del orden público en la forma que se establezca en los estatutos"... hategia, estatu zentralaren ardurapeko gauza da. Lerroalde honetaz nahiago dugu iruzkinik ez egitea.

Hezkuntzaz, berriz, 138.eko 30. lerroaldean estatu zentralaren eskutan daudela dio: "Los requisitos de expedición y homologación de títulos y convalidación de los estudios académicos y profesionales". Eta gerotxoago 139. artikuluko 4. lerroaldean: "En cualquier caso el estado podrá crear y mantener directamente, con independencia de las competencias que puedan asumir los territorios autónomos, cualquier tipo de centros docentes". Euskadik bere hezkuntza euskaraz planifikatzeko duen beharraz zer esango duzu lerroalde hau irakurrita?

Baina murrizpen guztiok, guttitxo izan edo, nonbait, eta 139. artikuluko 3. lerroaldeak zera dio: "El estado podrá dictar leyes de bases para armonizar las disposiciones normativas territoriales, aun en el caso de materias atribuibles a la competencia de los territorios autónomos, cuando así lo exija el interés general".


Euskararen etorkizuna oso arriskutan jar dezakeen beste murrizpen bat, eta bidenabar euskararen ofizialkidetasuna pikutara botatzen duena zera da: 140. artikuluko 2. lerroaldea. Zera dio lerroalde honek: "Ningún territorio autónomo podrá adoptar medidas que directa o indirectamente, obstaculicen... o limiten el derecho de los españoles de establecerse en cualquier parte del estado y ejercer su profesión, trabajo o cualquier otro tipo de función pública". Beraz, Euskadin lan egingo duten funtzionarioei, esaterako, ezingo diegu euskara jakitea eskatu zeren hori konstituzioaz kanpoan egongo bai litzateke. Nola, arraiio, lortuko dugu horrela euskararen normalizapena?

Gurutz Jauregi



L ANGI A BERTZALEEN B ATZORDEAK

Maiatzaren 25, 26, 27 eta 28an LABeko mila ordezkari beren sindikatuaren Kongresua ospatu dute Lejoan. Kongresu honetatik atera diren erabakiak euskal langileriarentzat garrantzizkoak izan daitezkeelakoan, idazkari jeneraltzat birrautatu gertatu den Jon Idigorasegana, ANAITASUNAKo lankidea berau, jotzea pentsatu dugu.



Gu prest gaude egiazko militantzia egiteko geure hizkuntza nazionalaz.

Nolakoa izan da kongresu hau Jon?

LABen lehen kongresu honen helburua linea syndikal baten klarifikapena izan da batez ere, linea hau gaurko kojunturari egokitzeko. Kongresua gogorra izan da, nerbioek asko jokatū dute, batzutan tentsio gogorrak agertu dira baina, militanteon diziplinak eta erreflexioak gainditu egin ditu egoera hau.

Zergatik egon dira tirabira eta tentsio hauk?

Gauza ezaguna da gaur egun LAB barnean korronte desberdinak daudela. EIA eta HASiren artean estrategia aldetik inolako kontradiziorik ez badago ere, ba dira syndikalismoaren interpretazioaz kontzepzio desberdin batzu. Batzuren ustez, LABen syndikalismoa ezker abertzalearen syndikalismoa izan behar litzateke, hau da, KASi lotua, ezker abertzalearen batasuna garantizatzeko. Beste korrontearen eritziz, LABek autonomia syndikal osoa beharko luke bere ekintza syndikalak aurrera eramateko. Orduan eritzi honetakoek ez dute positibotzat hartzen LABek zein alderdi edo koalizioekin ukan dezakeen lotura, eta kasu honetan KASekiko lotura.

Orduan LABek KAS utzi al du?

Bai eta hauxe izan da kongresuan gehien eztabaidatu den arazoa. Inportantea da LABek bere autonomia syndikal osoa gordetzea. KASetik irten egin gara, baina ez dugu bere alternatiba abandonatu.

Zenbat afiliatu ditu LABek?

Mila delegatuk hartu dute parte kongresuan; hau aukeratzeko mekanika hogeitafiliatutatik bat izan dela kontutan hartuz, 20.000 dirateke gure militanteak mementu honetan, eta epe labur batean kopuru hau handitzeko posibilitate handiak ditugula uste dugu. Afiliatu gehien daukagun probintzia Bizkaia da eta atzetik Gipuzkoa dator diferentzia guttiz. Nafarroan sorpresa ederra hartu dugu, orain hiru hilabete 200 afiliatu baizik ez genituen Nafarroa osoan, eta berak eskualde euskaldunetan eta Iruineko industri inguruetan, gaur egun, berriz, 2.000 afiliatu ditugu ia, eta Erriberaldearen moduko eskualde zailtan ere aurrera goazela esan dezakegu.

Zeintzu dira LABen karakteristika nagusiak?

Gu klase syndikatu bat gara, horregatik gizartearen esturturen aldaketa lortu nahi dugu, hots, sistema kapitalista apurtu eta beronen ordeztama sozialista bat eraiki. Bestalde klase syndikatu honen barnean gogortu egin nahi dugu langileen protagonismoa. Entrepresa batetan, erabakiak hartzeko organorik inportanteena asanblada da guretzat. Eta hau dela eta, zentral syndikalaren protagonismoaren aurrean, lantoki komiteen protagonismoa inposatzeko konpromezua hartu dugu. Honetarako zentral syndikalek langileriarengan gaur

egun duten eragina oso handia dela kontutan hartu behar dugu, guk ezin ditugu zentralak eta asanbladak elkarren kontra jarri, zeren marginaturik geldituko baikinake. Gure ustez egin behar dena zera da, asanbladak bultzatzen dituzten syndikatu irakurtzaileen bloke bat egin eta syndikatuak eta asanbladak elkarren kontra jarri gabe, epe laburrean lantoki komiteen sendotze bat lortu.

Zentzu honetan intersyndikal bat sortzeko asmotan zabilzatezela entzundugu...

Bai, proiektu eta ponentzia bat agertu dira kongresuan intersyndikal baten sortzea defendatuz. Asmoa, syndikal erreformismo burukratiarioi kontra egiteko asanbladen mgimendua gogortuko lukeen intersyndikal bat osatzea litzateke. Hala ere, oztopo handiak daude proiektu hau aurrera eramateko. Honetan sartuko litzatekeen zentral batek kojuntural-



KASetik irten egin gara baina ez dugu bere alternatiba abandonatu.



errik planteiatzen du intersyn-
nonen eginkizuna, hots, Mon-
paktuari aurka egiteko. Gu
est gaude paktu horren kontra
atzeko, baina gure ustez inter-
horren eginkizunak askoz
gokak izan behar du, langileria-
problematika globalaz arduratu
ko luke.

esyndikal honetan sartu ahal
irateke esaterako, SU, USO,
eko korrante unitaria, CSUT,
LAB eta beste zenbait langile
ismo.

ndikatu batek independentista
du izan?



Syndikatu batek ez du linea poli-
tiko absolutubat aldarrikatu behar,
alderdi politiko bat ez delako. Syn-
dikatu baten langileen kontzientzi-
mailak oso ezberdinak ohi dira, ho-
rregatik gure sindikatuan langile sek-
tore desberdinak integratu nahi bal-
din baditugu ezin dezakegu traba
absolutorik jarri puntu konkretu bati
buruz. Guk kontzientzia guttiago di-
tuzten sektoreak ere integratu behar
ditugu, denok asumitua izateko gau-
za den programa politiko baten bi-
dez. Kontzientzia aldetik atzeratuen
dauden sektore hauekin formazioz-
ko prozesu bat eraman behar da, eta
ba daramagu. Baina argi utzi behar
da eginkizun politiko estrategikoak
alderdi politikoei dagozkiela.

Eta zer dioskuzu emigrazioaren arazoaz?

Gure militantziaren ehuneko ho-
gei emigranteak dira. Honela ezezza-
tu egiten dugu, ez hitzez bakarrik,
praktikaz baizik, euskal sindikatuei
bota ohi zaie diskriminatzaileak dire-
lako akusazioa. Argi dago gaur,
syndikal burokrazia zentralistak
erabili duen argudio hori faltsua
dela. Gure alternatiba syndikala
langile guztientzakoa da, zein ber-
tokoak zein kanpoan jaioak izan eta
uste dugu langileriak hau asumitu
duela.

**Eta Ipar Euskal Herrian ezer egin-
go al duzue?**

Gu Euskal Herriaren soberania na-
zionalaren alde gaude, hau da, zazpi
herrialdeen birbatzearen alde. Ezin
dugu, beraz, geure syndikal ekintza
hegoaldeko lau probintzietara soilik
mugatu. Une honetan Hegoalden po-
litika eta klase kontzientzia askoz
handiagoa dela kontutan hartuz,
normala da guk bertan bestaldean
baino intzidentzia gehiago izatea.
Iparraldean, zoritxarrez, gaurkoz ez
da industri hazkunde inportanterik
eman guk intzidentzia izan ahal izateko
bertan. Honek ez du esan nahi
Iparraldea abandonatzen dugunik i-
nondik ere, LAB bestaldean desa-
rroilatzeke konpromezua hartu
dugu, eta Hegoaldearekin koordina-
tuz linea bateratsu bat erroteko.

**Nolako garrantzia ematen dio-
zue euskarari LABen?**

Gure hizkuntza nazionalaren
errekuperazioaren arazoa, Kongresu-
an eztabaidatu den arazo garrantzi-
tsu bat dugu; zentzu honetan eta aho
batez, LABek maila guztietan euska-
rari bere tokia ematea onhartu du eta
ez teoriarik bakarrik. Euskara lantoki-
etara eraman behar dugu eta gizarte
harreman guztietarako erabili, gure
oinharri sozial osoak problema hau
asumi dezan lortu behar dugu.

Egia da hau ez dela erraza izanen
eta, batez ere, euskara guztiz galduta
dagoen tokietan. Bistakoa da guk
ezin diegula militante guztiei epe la-
bur batetan euskara ikastea eskatu.
Gu prest gaude egiazko militantzia
egiteko geure hizkuntza nazionalaz.
Arazo honi buruz Kongresuan, Eus-
kaltzaindiak eratu duen kanpainari
gure laguntza osoa ematea erabaki
zen.

**Emakumeek nolako portzentaia
osetzen dute zuen sindikatuan?**

Ehuneko hamar edo hamabost
izango dira emakumeak sindikatuan.
Emakumearen problematika eta ema-
kume langilearena, emakume eta lan-
gile bezala zapalduarik dagoen aldetik
aztertu da Kongresuan. Gure puntu
nagusien artean sartu dugu arazo
hau. Batzuk, emakumeek, emakume
izateagatik, sindikatuko zuzendari-
tzan egon behar zutela zioten. Hau
ez da onhartu, zeren pentsatzen bai-
tugu hori diskriminazio berri bat
izango litzatekeela. Orain arte ere,
emakume bi izan ditugu sekretaritzan
zentralean, baina ez emakumeak zire-
lako, lan hori betetzeko ahalmena
frogatu zutelako baizik, eta honela
izan behar du gure ustez.

Idazkaritza berria nortzuk osatzen duzue?

Kongresuan idazkaritzarako 8 izen hautatu ziren, gero herrialde bakoitzak beste bina aukeratuko du, eta herrialde bakoitzean koordinatzaile bat. Orain hautatu direnak dira: Goio Larrazabal, Xabier Onaindia, Juan Anjel Arrea, Martin Auzmendi, Juanjo Zubimendi, Txuxi Corres eta ni.

Kongresuan bestelako gai inportanterik erabili duzue?

Gai eta eztabaida asko izan dugu kongresu honetan. Beste puntu inpor-

tante bat gure syndikatua negoziatzailea izan behar ote zuen ala ez izan dugu. Orain arte negoziaketa askotan parte hartu dugu, zeren horietan ez egoteak lan gileengandik marginaturik utziko baikintuzke.

Ez dugu onhartzten langileen atzetik egiten den negoziaketarik. Honen exenplu bat Etxagintzaren grebarena izan dugu, orduan guk ez genuen negoziaketetara jo, zeren gure ustez, mementu hartan zentralen majoritarien marginatu egiten baitzuten langileen asanblada; gure

jarrera orduan Etxagintzaren asanblada eta komite ordezkariak buztatzea izan zen. Hau guztiz inportantea da negoziaketaren arazo nola ulertzen dugun jakiteko. Gure negoziaketa, langile asanbladak onharturiko puntuen transmisio huts bat izango da. Gure ustez, asanbladaren erabakiak ukitu ezinezkoak dira, eta hauk dira, asanbladak berak nahi izanez gero, negoziaketa mahaira eramango ditugunak.

J.L.L

AFILIAZIOA



AFILIACION

IZENA
nombre

ABISENAK
apellidos

NOIZ JAIOA
fecha nacimiento

NON
donde

ZUZENBIDEA
domicilio

HERRIA
pueblo

D.N.I.

TELEFONOA
telefono

IKASTEAK
estudios

OGIBIDEA TA MAILA
profesion y categoria

LANTEGIA
empresa

HERRIA
pueblo

ADARRA
rama

ESKUALDE
zona

HERRIALDE
provincia

NOIZ SARTUA LAB'EN
miembro de LAB desde?.

SEME ALABAK ETA ADINA
Nº de hijos y edades

EUSKARAS HITZ EGITEN DUZU?

Hablas Euskara?

ZENBAKIA
Nº Carnet L.A.B.

L.A.B.

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

Tf. 94/4245586

L.A.B.

(PUBLIZITATEA)

(PUBLIZITATEA)

ARGENTINA

78



Buenos Aires. Goazen denok mundialetara!

Maiatzaren 20an, gaueko 11,30tan abiatu ziren Argentinara Kubalaren mutilak, munduko futbol txapelketan parte hartzeko asmoz. Horra notizia.

Futbol lehiaketa hauk, beste joko olinpikoak bezala, nazio eta herrien arteko harremanak hestutzeko sortu omen ziren. Ez omen dute politika kutsurik izan behar. Ez dakit hori inola horrela izan den. Egun besterik ikusten dugu behintzat. Haserreak eta borrokak noiznahi eta non-nahi ikusi ahal izan ditugu.

Eta normala da halaxe izatea futbolariak bere estatuaren jenero politikoa saldu behar badu beste nazioen artean. Futbolariak estatuaren sinbolo politiko badira. Estatu bakoitzak irudi ona lortu nahi du. Besteak harritu nahi ditu: Zein sistema politiko ote du horrelako deportista lerdan eta trebeak dituen herriak? Behin hola Holofernesen soldadu asiriarrek Judith israeldarraren edertasunarekin liluraturik zioten bezala: "Nork gutxietsi hain emakume lirainak dituen herria!"

Futbolzale eta ederzale izanik ere ez luke egon behar futbolariaren oinen malabarismoarekin edo neska dotorearen iztar eta bularrekin identifikatu beharrik. Bitxia da benetan, baina ez da horrela gertatzen. Arconadak penalty bat gelditu duela eta oso pozten zara. Espainiako atezainnik onena izanik ere, Miguel Angelek lekua lapurtu diola, eta nahigabetu egiten zara. Bitxia, baina egia. Identifikatu egiten gara. Pelérekin edo Iribarrekin, Urtainek edo Amparo Muñozekin. Indibidualki eta kolektiboki.

Ez da harritzekoa, bada, munduko futbol txapelketan ere nazionalismo txobinistenaren fantasmak birbiztea. Irabaziz, aberriari zerbitzu on bat egiten zaio. Galduz, aberriaren ohorea zikintzen da. Herri bezala barregarri egin duzun sentimenduarekin gelditzen zara. Progresuaren eta aurrerapenaren sinbolo bihurtzen da kirola. sinboloak berekin duen erakarmen eta itsumenarekin. Estatu sozialistek kirolari eman ohi dioten garrantziaren arrazoi handienetako bat hori da: kirolaren identifikazio indarra.

Identifikazio mekanismo horrek zaramatza futbolariak zer jan, nola lo egin, zein filme ikusi, zein liburu irakurri duen jakitera. Haren maletaren pisua albiste bihurtzera. Heroi horien bizitza pribatuaren zirrikiturik ttikiena kontrolatzera. Egunkari eta aldizkari, irrati eta telebista, hortaz ari zaizkizu. Etengabe eta serios. Kirolariaren galtzerdien kolorearen berri ere ematen dizue.

Bere burujabetasuna lortu ez duen herri ttikiak, kirolari dimentsio politiko eta nazionalista emateko joera biziagoa du. Egokiera oro da on herri erreibindikapenak gogoratze-ko. Euskaldunok ere harroago egongo ginen, zalantzarik gabe, Kubalaren mutilen artean beste lau bost bat euskaldun egon balira.

Kirol txapelketa hauen eragina ez da politikan bakarrik nabari. Ekonomikoa ere ba da. Egungo marketing eta publizitateak ondotoxo daki mekanismo hauen berri. Agentzia turistikoak, telebista saltzaileak, dendariak, aurrezki kutxak, etab. baliatzen dira hortaz.

Kirola ez da inorentzat adierazi nahi zaigun bezain kirol huts eta inuxenterik. Argentinara joan diren futbolariak ere ez hain futbolari huts. Espainiako esentzien ordezkari, Espainiako herriaren mezulari dira. Ezin zitezkeen, bada, Erregerekin hizketaldi bat egin gabe abiatu. Hori ere muntaketa politiko osoaren derrigorrezko zatia da.

Espainia oso goitik geldi dadin, dena prestaturik dago. Espainia berriaren aurpegi demokratiko irribarretsua agertu behar dute. Hala izan bedi.



ZAIRE:

Jauskari belgak Zaireranzko bidean.

Mendebal zapaltzaile honek daukan nazioarteko problemarik larriena Afrika-koa da. Bertan sistema baten kontradizio ekonomiko eta soziologikoak arroparik gabe, biluzik agertzen zaizkigulako, izan daiteke honetarako arrazoi nagusia. Munduko Estatu kapitalist aurreratuetarako Afrikak erloju bonba bat osatzen du. Afrika barik, hemengo "progresua" herrenik geratuko litza-teke, amaigabeko zulo batetan sartuz. Afrikan mundu guztiko sozialismoaren etorkizuna erabaki daiteke.

BLANKOEN DIKTADURA BELTZA ALA BELTZEN DIKTADURA ZURIA

Mobutuk, Estatu kolpe zuri batez Estatu harrapatu zuenez geroztik, atzerritarrei egindako kontzesioak gero eta gehiago ugaritu dira. Mozkinak, bere inguruetako jopu zintzoei egindako faboreak ezin konta daitezke. Kinshasa hiriburua basamortu baten iturburua dugu. Bertan Afrikako trafikante guztiak elkartzen dira ondasunak Europa eta Amerikan zehar zabalduz. Ia aurrehistorian zegoen eta dagoen herri honen bihotzean Mobutuk eta ondorengoek, herri guztien izerdiez kolonia moderno bat eraiki dute. Kinshasan teknika moderno baten tresna sofistikatuenak erraz aurki daitezke baina hortik hamar edo hogeikilometrotara gabezia eta gorritasuna hasten da eta bere egarrian Zaire osoa harrapatzen du. Honelako sistema batek ez du ezertarako bertoko lagun bizi bizimaila desarrollatu, gehienetan aldiz, bertoko herriak pobregotu egin ditu.

Kolonialismo modernoan jantziak eta folklorea errespetatzen dira, zoritxarrez ondorioak berdinak dauzkagu: lehengaien pilaketa, bertoko burjesia hiritar baten jaiotze eta desarrolla eta bertoko herrien desjabetzea. Mobutu, atzerritar planak aurrera eramateko, etnia batetan soilik oinharritu da, beraren etnien bereziki eta horretarako gainerakoak gogor zapaldu ditu. Politikaren aldetik, ezberdintasun soziologiko ekonomikoak guttitu beharrean handituz doaz, iraultza edo eta gatazka mozteko bide bakarra Mobuturen diktadura sortu zuten europarrek, orain berdin segituz. Hau konprenitua izan da Washington-en eta Parisen. Mobutu txarra da, baina interes zapaltzaileen defentsarako gaitzetarik onena izan da eta Mobuturen diktadura zuria blankoek bihotzez apuiatzen dute eta egingo ez balute beraien pribilegioak galtzeko arriskutan ipiniko lituzkete seguru.



Mobutu presidentea, kolonialismoaren interesen defendatzailea.

ZAIRE ATZERA EZINEZKO ARAZO BAT SOLUZIOBIDEA LUZAMENDUTAN DAGOKE

Hau da bereziki Pentagonoak ongi dakiena. Kapitalismoak luzamendutan bakarrik atera daiteke garaille. Baina nola luza daiteke prozesu hau atzerazinezkoa ba da? Esplika dezagun kapitalisten buruhaustea.

Herri baten iraultza mozteko bi bide nagusitu dira munduan:

- a) Estatu kolpea eta diktadura.
- b) Demokrazia burjesa.

Zairen, askotan bezala lehengo erremedioa aplikatu dute eta orain arte beronek fruitu ugari eman du. Hala ere, atzerazinezko puntura ailegatu dira. Gatazka desorganizatuak beste batzuren laguntzaz osatu egin dira. Honela segituz, pikutara bidaliko lukete sistema osoa. Sendatzeko beraz, lehenik bi pauso lehenik bi pauso egin behar dira. Izurria errotik moztu eta izurri horren kausari sendabidea ipini. Lehengo horretan sartzen da Frantzia eta Belgikaren oraingo esku sartze hau eta parte hartzeko akordio iraunkorra. Akordio honetan, Frantziak hartzen du ardura gchiena baina geroago ikusiko dugunez, Europako gainerako Estatuak parte ere hartzen dute OTANen estrategiari jarraituz. Taktika berri bat sortu dute OTANek eta Estatu Batuek. Parisen hartu berria duten akordioari jarraituz blankotasuna belztuko da Afrikan. Hemendik aurrera Afrikako hogeit hamar interbentzio indar harmatu bat osatuko dute. Beraien bitartez beraz, betiko interesak "beltzek" defendatuko dituzte.

Zaireko demokrazia burjesa oso gutti landu dute Europakoek. Beroni amaiera zoriontsu bat emate-

ko baldintza soziologiko bereziak sortu behar dira Zairen, oraindik sortu ez direnak. Batzumentzat Zairen demokrazia bat ipintzeak edo eta muntatzeak sozialismorunzko pausoak handituko lituzke eta askotan gertatzen dena gertatuko litzateke hemen ere agian. Hala ere, europar guztiak ez datoz batera arazo honetaz. Henri Simoneten (1) deklarapenetan oinharrituz, ba dirudi taktika berri bat gorpuzten ari dela zenbait Europako oposiziozko estatamenduetan (PS), baina azken finean Mobutu kendu nahidutenek ez lukete inoiz ere demokrazia plazaratuko Zairen, zeren sendabideak ez bailuke gaixotasuna kenduko. Gaixotasuna kentzeko, Zairek hainbeste Afrikako herrien antzera, beste modelo bat behar du. Txontxongilo berria ipintzeak ez du gaixotasuna sendatuko, baina luzamendutan ibiltzeak konponbidea sar dezake gerorako eta berau da kapitalisten itxaropena.

INFORMAZIO NAHASIEN ARTEAN ARGI BILA

Oso gauza nabaria da informazioa kontrolatzen dituztenak botore politikoa kontrolatzen dutela azken batez. European informazioa barik desinformazio neurtua eta zentsuratua ematen da kasu askotan. Eredua Zaireri buruz emandako informazioan daukagu. Nazioarteko informazio mailan CIAk edo Mendebaleko inteligentsi zerbitzuek eskutian daukate komunikabideak. Honela bakarrik konpreni daiteke agentzia guztien "objektibotasuna". Harrigarria gerta dakiguke lehengo egunean irakurri genuen Warsoviako Paktuari buruzko informazioa. Agentziek ziotenez Warsoviakoek Afrikan eskusartzea erabaki zutenetik honuntz, Alemania demokratikoa (DDR) zen honetaz arduratu behar zena. Txanponaren beste aldean ez dute ezertarako OTAN erakundea ezertarako ere aipatu. Top Secret informazioaren ondorioa. Betiko nahaste borrareroak komunistak izango lirarteke. Arazo guztiaren iturburua, Kuba, Sobietar Batasuna edo kasu honetan bereziki DDR izango litzateke. Askotan bazterrak ere nahastatzen dira, arazo orokorrari argia kendu nahiz. Hemen, esaterako, egia batek gezur asko ekar dezake. Egia dateke, Zairen Alemania Federalak (DBR) satellite espioi bat eraikitzen ari dela baina hortik gerra bat atera zaigula esateari gehiegikeria deritzogu. Interes oso gorrak daude alde bietatik eta alde batetan sozialismoaren interesak, herri zapaldu guztien interesak kokatzen dira eta honetaz ez gaitu inork argitu behar.

Zaireko gatazkak saio bat osotzen duela esaten du hainbat komentariak. Estrategia orokor baten aztarnak nabaritzen dira Afrika osoan. Alde bietatik nabaritzen da noski. Afrikan berriro ere, sozialismoa eta kapitalismoa burrukan ari dira. Egiptoko erreferenduma, Marokoko ekintzak, Kubanoen laguntza horrela ulertu behar dira. Kanpoan geratzeak ez du balio. Egiptotan komunistak kargu publiko guztietatik bazterturik izan dira. Amerikan interbentzio indarra bilakatu ditu Marokoko soldaduak. Viet-Nam.en bezala, gatazka zabalduz doa. Angola izan daiteke amerikanoen helburua. Zoritxarrez beraien-tzat Sobietar Batasunak ez luke erraz hatzaparrak ipintzen permitituko.

T.T.

HISTORIAN ZEHAR BENJAMIN DISRAELI (4)

Zein pozarren nagoen Iratiko oihan hauetan! Edozein amets egiteko leku aproposagorik nekez bila nezakeen. Benjamin Disraeliren itzala oraindik hemen dut eta hartaz zerbait gehiago jakiteko aukera ez dut galdu nahi. Horregatik, galdera bat egitendiot.

—Esan zenidan Disraeli oso gizon tematia izan zela. Helburu bat markatu zuen txikitan, eta hari lotu zitzaion su eta gar. Gizon handi bat izan nahi zuen, gizonik handiena. Baina urteak aurrera zihoazen eta helburu hori lortzeko bidean, hainbat frakasu ikusi genuen. Orain, Parlamentuan sartuta ikusten dugu, baina berak uste izan zuen arrakasta ez du oraindik lortu. Diputatuei egindako lehen hitzaldian-frakasu sonatu bat lortu zuen, itxuraz behintzat. Txaloen orde, barreak eta irriak bereganatu zituen. Baina ba zirudien Disraeli frakasu bakoitzarekin handitu egiten zela, haien gainetik nagusitu. Jausten bazen, zutitu egiten zen, markaturiko bidean aurrera egiteko.

—Horrela zen —erantzun dit itzalak—. Esan nizun bere arreba Sarahri idatzi ziola: "Hurrengoan, txalo zartadene artean eseriko naiz". Baina Londreseko Parlamentuak ez zuen hiri berehala ikusi. Bitartean, Disraeliren interbentzioak laburrak ziren, eta hitz egiteko zutitzen zen bakoitzean, handik hara zebiltzen diputatuak bere aukietara joaten ziren korrika, harengandik espero zuten mendekua, diskurtsu paregabe bat, entzun ahal izateko. Eta ohi zuen bezala, nobela bat idazten hasi zen. Frakasu bakoitzaren ondoren, nobela bat idazten zuen. Oraingoak, "Pompeya-ko azken egunak" zuen titulua. Baina beste gertaera garrantzizko bat gertatu zen: Wyndham Lewis diputatua hil egin zen. Eta gogora zaitez nor zen hau: bere distri-

tuan berarekin diputatu hautatua izan zen. Hain zuzen ere, eta esan nizun bezala, Lewisen emazteak bultzatu zuen Disraeli bere senarrarekin batean diputatu bezala bere burua aurkeztera. Lewysen emaztea, Mary-Ann, deskontsolaturik zegoen eta Disraeli, leialki, hurbildu zitzaion bere laguntza eskaintzera. Benjaminek emakume asko ezagutu zituen, eta intimitate handiago edo txikiago batez tratatu. Gehienak, edo beharbada denak, andre brillanteak ziren, dirdiratsuak, zela beren edertasuna fisikoa, zela beren kualitate intelektualak. Mary-Annek ez zuen horrelakorik. Zer ikusi zuen emakumeak ezagutzen hain trebe zen Benjaminek Mary-Annez maitemintzeko? Eta Benjaminek Mary-Ann bere emaztetzat aukeratzean, ez zuen huts egin. Benjaminek 33 urte zituen, eta Mary-Annek 45. Mary-Ann ez zen, izatekotan, ezta aberatsa ere. Eta Disraeli zorrez jota zegoen! Zerk bultzatu zuen Mary-Annengana? Mary-Ann ezagutzen zutenek, zentzugabetzat jotzen zuten, hitz egiterakoan taktu gabekoa, jantziak eta etxe hornitzerakoan gusturik gabea. Diputatu batek, handi izan nahi zuen batek, andre egokiagorik bila zezakeen. Baina Benjaminek Mary-Ann hautatu zuen.

—Eta ezkondu egin ziren?

—Disraelik ezkontzea proposatu zion. Mary-Annek proposamen hura ongi hartu zuen, baina horrelako gauza bat arinki ezin zitekeela egin eta denbora eskatu zion. Bitartean, Benjamin Bradenhamera joan zen, bere aitaren etxera, eta tragedia bat idazten hasi zen. Paraje berde hartatik gutun sutuak bidali zizkion bere maiteari. Azkenik, 1839. urtean ezkondu egin ziren Mary-Ann eta Dizzy. Behin, andre batzu edertasunaz mintzatzen zirelarik,



Mary-Annek exklamatu zuen: "Oi, ene Dizzy ikusi behar zenukete bainuan dagoenean!" Bien izaerak oso ezberdinak ziren. Mary-Annek izaera biren karakteristikak zerrenda paralelu bitan ezarri zituen, eta oso kuriosa da ikus-tea zein ezberdinak ziren. Dizzy trankila zen, barea, jasankorra, langilea, bestei emana, harroa, berekoitasunik gabea, genio bat. Mary-Ann, alderantziz, bizia zen, suminkorra, nagia, berekoia, alaia... Kualitate aldrebesak zituzten. Gertaera bitxi bat kondatuko dizut.

—Ea, esan.

—Napoleon Ingalaterran exiliaturik zegoen eta behin Dizzy eta Mary-Ann txalupa batetan Tamesis hibaian zehar eraman zituen, Napoleon berak txalupa gidatzen zuela. Txalupak lurra jo zuen eta Mary-Ann biziki asaldu zitzaion. "Ez zenezakeen ez dakizkizun gauzak egitera ausartu behar! Beti ausartegia zara!" Napoleon barrezka zegoen, eta Disraeli beti bezala, ilun eta pentsati. Napoleon oraindik ez zen enperadore, eta Mary-Annek unti gidari dorpe bat bezala tratatu, erabili zuen. Bitartean, Gobernu liberalaren popularitatea beharantz zihoan. Fabriketan makinismoa inposatzen ari zen eta langileak kaleratzen zituzten. Langabezia izugarrikoa bilakatu zen.

—Orain bezala.

—Miseria gonbatitzeko, "Work-House" direlako etxeak sortu ziren, ofizialak, zeinetan txiroen artean, langabeen artean, janariak distribuitzen, banatzen diren. Dickens idazleak "Oliver Twist" nobelan, etxe hauen deskripzio latz bat egin zuen. Etxe deshumanizatu hauek herriaren gorrotoa jaso zuten. Parlamentuan burruka gogor bat sortu zen. Toriek liberalen aurkako ofentsiba bat eraiki zuten. Disraelik ere protekzionismoa defendatzen zuen librekanbismoaren aurka. Librekanbistek oihukatzen zuten: "Behar ditugun janariak inportatu egingo ditugu, eta munduaren fabrika bilakatu gara". Protekzionistek baserrita-

rren eskubideak defendatu nahi zituzten, janarien sarrera neurrigabeari mugak ezarri nahirik. Torien posibilitateak handitzen ziren. Peel, lehen ministrua izango zen, eta Disraeli, alderdi kontserbadorearen hizlari dirdiratsua, ministrari. Ordurako, Victoria erregina ezkondu egin zen. Senarra, Saxonia-Koburgo-ko Alberto zen. 1841. urtean, erreginak sir Robert Peel aukeratu zuen lehen ministrari bezala eta honek, uste zenaren aurka, ez zuen Disraeli bere Gobernu berrirako aukeratu. Oraingoan ere, Disraeliren jatorri judua tartan zegoen. Disraeli Gobernuan kargu bat eskatzeraino umildu egin zen. Baina ez zioten eman. Benjamin jota zegoelarik, bere emazte Mary-Annek, Benjaminek ezer jakin gabe, Peel-i gutun bat bidali zion, bere senarraren desilusia eta tristura adieraziz, baina honek ere ez zuen deus lortu. Parlamentuan, orain, Disraeliren egoera oso labana da. Zer egin? Aurrean, oposizioa, bere etsai amorratuak. Alboan, Gobernu eta Peel, bere hain gupidagabeki iraindu zutenak. Bakarrik aurkitzen zen. Eta bakartasun horretan, handitu egin zen. Egoera hori denek konprenitzen zuten eta horregatik Disraeli hitz egiteko zutitzen zenean, belarri guztiak tente jartzen ziren. Zein bide aukeratu zuen? Disraelik oso zuhur jokatu zuen. Gobernuarekin ematen zuen botua. Ez zuen inolako mendeku nahirik erakutsi. Duin agertu zen, eta errespetuaz inguratu zen. Diputatu gazte eta intelektualak bereziki inguratu zitzaizkion, baina Peel-en Gobernu gogor zegoen, oinharri sendoz eraikirik, eta urteak aurrera zihoazen. Bere emazteari idatzi zion: "Tayllerand-ek egiten zuena egiteko ordua heldu dela uste dut, zeinek zer egin behar zuen ez zekienean, ohean sartzen baitzen". Eta negua igarotzera Parisera joan zen. Luis Felipe erregeak Saint-Cloud-en hartu zion, eta Hotel European ostatatu zen. Luis Felipe-rekin maiz hitz egiten zuen. Londreseko Parlamentuko diputatu gazteak Parisera joan ziren Disraeli bere buru bezala hautatzeko. Dizzy Londresera joan eta lanean aritu zen. Torien alderdi barneko desbiazio hura beldurrez eta errezeluz ikusi zuen Peel-ek. Erregina berak ere ez zuen ongi ikusi Disraeliren portaera hura. "Ingalaterra Gaztea" zen taldearen izena. 1844. eta 1845. urteetan, hiru tomatoko nobela politiko bat idatzi zuen, "Ingalaterra Gaztea, Coningsby eta Sybil".

—Eta lortu ahal zuen arrakastarik?

—Oso eztabaidatua izan zen...

—Orduan arrakasta lortu zuen. Idazle batentzat mingarriena, bere obra bat indeferentziatz hartzea da.

—Ba dirudi horren esperientziarik dazula.

Nik ez diot erantzun eta Tayllerand bezala, belardian etzan egin naiz.

anaitasuna

euskal herriari,
informazioa
euskaraz.

EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

Zeruko
ARGIA

GEU
GARA
EUSKAL
PRENTSA

anaitasuna

Zeruko
ARGIA

KIROLAK EUSKALDUNDU NAHIZ



Gure herriko kirolarien artean hainbat euskaldun (= euskaradun) daude. Hala ere, kirolei buruzko informazioetan ez da ia euskararik erabiltzen. Autonomia dela eta ez dela, talde batzu Euskal Herriko kirolaren antolakunde autonomikoaz arduratzen eta lan egiten ari dira. Ongi da! Baina antolakunde hutsez ez da gure problema konpontzen: Kirola ere euskaldundu behar dugu. Eta abiapuntu ona izan daiteke horretarako, Iruiñean ospatzeko den Udako Euskal Unibertsitatea.



Kirol kazetaritza euskalduna behar dugu.

Zorionez, bizitzaren arlo guztietan egin nahi da Euskal Herria. Eta zorionez dela badiot, arlo guztietan izan ezik, beste egin ahal izanen dugulako da. Nahi horren adibide gisa, kirol arloan gertatzen ari den esperientzia interesgarri bat aipatu nahi dut: "Euzkadiko I. Kirol Bilkurak" izenaren inguruan ospatzen ari diren kirol saioak.

Patinen gaineko hockey-arekin hasi ziren Nafarroako Noain herrian, gero Bilboko San Mames-en eman zitzaienten inaugurazio ofiziala edo, eta udan zehar beste ekitaldi asko egingen dira. Denetara, hoguei bat kirola desberdin, partaidetarako eta jolaslekuak euskal herri guztietara joan direlarik (gutti bada ere, Iparraldean barne). Beharbada, orain arteko antolakuntza ez da perfektua izan; baina eman dituzten pausoak kontutan hartuz, eta bilduriko esperientziarekin abiatuz, hurrengo urteetan gauza bikainagorik egin daitekeelakoan nago. Alde horretatik, ba, eskertzekoa da, Sustraiak taldeak egin duen lana, berori baita antolaketa aritu den taldearen izena.

KIROLARIAK ETA EUSKARA

Euskal idazle eta euskaltzale naizen aldetik, ordea, ba dut kezkarik, kirol kazetariak eta bestek erabiltzen duten hizkuntzari buruz. Izan ere, nik neuk

artikulu serie hau idazten hasterakoan nuñen ardura eta asmoa, kirol saileko artikuluak ere euskara hutsez egin daitezkeela frogatzea izan zen. Zeren eta, azken batez, frogarik onena, praktika bera izanen zelako ustea bainuen. Hala ere, dirudienez, nire praktika motel eta labur honek ez bide du oraindik inortxo komentzitu, kirolei buruzko artikuluetan ez baita ia euskararik ikusten.

Tira! Kexak alde batetara utziz, hobe dateke bide praktikoak prestatzea, inoiz helburu honetara heldu nahi badugu behintzat, halegia, kirola euskara hutsez lantzeraz eta kirol kazetaritza euskalduna lortzeraz. Zer egin dezakegu, ba, horretarako? Ideia eta bide asko daudeke eta, beharbada, guztiak erabili beharrra. Horregatik, bide erabilgarrietako bat adieraziko dut.

Ene ustez, arazo honetaz arduraturik gaudenok bildu eta antolatu behar dugu, lehenik eta behin. Eta guztion artean, plangintza egokia prestatu behar dugu, polikiro kirol kazetaritza euskaldunaren azpiegitura prestatuz joateko. Posibilitateak nahiko dira: Gaur egun ba ditugu, Euskal Herri mailan zabaltzen diren zenbait egunkari, aldizkari eta aldizkari esportibo. Hauetan posible izan behar luke, informazio esportiboazko sail bat euskara hutsez eta zerbaki guztietan


mantentzeak, horrela kirol kazetari profesional eta euskaldunak bultzatzen direlarik. Eta horretarako pertsona egokiak kontratatuzko, dedikatuzko eta espezializatuzko asmorik ez badute, euskararen aldeko lanean jo eta ke ari direla eta antzerako ipuin merkerik ez diezagutela konta.

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA, BILGUNE EGOKIA

Noiz eta nola bil? Gauzak patxadaz eta seriotasunez planifikatzeko, denbora behar da. Bestalde, ahalik eta jenderik gehienara heltzea ere oso interesgarria da. Hori dela eta, oso egoki dateke, euskal kulturaren ardatz garrantzizkoenetariko bat den Udako Euskal Unibertsitatea (U.E.U.), bilgunetzat hartzea.

Aurten —ihaz bezala— U.E.U.a Iruiñean ospatuko da. Irailaren 17tik 29ra, euskara hutsez, zientzia eta kultur arloko gai nagusiak landuko dira ikastaro eta mintegian bidez, seigarren aldiz egiten den Unibertsitate honetan. Zergatik ez dugu kirola ere gai bezala sartzen? Ni horretan nago; eta horregatik, dei bat zabaltzen diet horretaz arduraturik daudenei, bertara bil daitezten. Zer egiteko? Ba, oraingoz mintegi pare bat dago antolaturik, kirolaren inguruko antolakuntza eta filosofiari buruz. Mintegiotan, datorren urteari buruzko plangintza eztabaidatuko da, halaber. Lan asko dago egiteko, eta langileak falta: Betiko problema, halegia.

Bide luzea dugu ibiltzeko, baina Euskal Herriko kirolari eta kirol idazle euskaltzaleak bilduz, geure helburua lortuko dugulako esperantza ez zait falta. "Euskara! Jalgi hadi kiroleterara!" izan daiteke gure lema. Zuk ere parte hartu nahi al duzu? Ea ba! Iruiñean zure zain egonen gara.



Hauk gizonezkoen lanak ez zirela erakutsi ziguten.

ETXEKO LANAK

GIZARTEAN EMAKUMEOI ESKAINTZEN ZAIGUN EGINKIZUNA

Txikidanik, etxeke lanak betetzeko hezitzen gaituzte. Jostailu bezala: panpina, amatxo izateko, sukaldetxo bat, janariak prestatzeko, erratza, amari laguntzeko...

Eta jokuz azkar ikasi ere gero errealtateari ondo erantzuteko, "jar ezazu mahaia", "joan zaitez hau, eta hori, eta hura erostera", eta geure pentsakizun guztiz naturala ezpainetara igoten zaigu: "zergatik beti ni! Hor daude, ba, Patxi, Jon eta Mikel..." "horik ez dira mutilen lanak". Ikasi genuen, irakatsi zigutelako, zeintzu diren "nesken lanak". Gero, jostera bidali gintuzten eta geure jantzitxo politak geuk egiten ditugu. Sukalde pixkat, "puerikultura" ere, eta apain apain, goxo goxo, geure ikasketak bukatu ditugu geure helburua betetzeko. Gure "helburu" hori aberatsa baldin bada, hobe dugu unibertsitate-ra joan, gure pertsona hornituko duen karrera bat estudiatzera, ez horretan lan egiteko... baina zenbait girotan, emazteak "kultura" bat behar du izan, elkar-hizketan 30 hor

xarmentki parte hartzeko.

Emakumeok, gazte edo zahar, behartsu edo aberats, etxetik kanpo lan egin edo ez, guztiok ba dugu eginkizun arrunt bat, gizonarekiko zerbitzua, halegia. Zerbitzu hau oso zabala da: gizonaren sexu beharrak bete, umeak egin, arropak garbitu, etxea txukundu, jakiak erosi eta prestatu, seme-alabak hazi... laburki, inguruko bizimodua alaitu, gurea alde batera utziaz.

EZKONTZA EDO NOLA ESKLABU BAT PREZIO ONEAN EROSI

Aipaturiko zerbitzu hauk, dohainik egiten ditugu emakumeok ezkontzaren bidez.

Amodioa, eta horrelako filosofiak, gehienetan, egia latza ezaltzeko egiten ditugun mamuak iza-

ten dira. Errealtatea berriz hau da: emakumeak beste lanposturik ezin du eskuratu, ezkontzan, senarraren nahiak ondo betetzen baditu, seguritate bat izanen du behinik behin.

Eta gizona ez dago ondo bakkirik... nola egin etxeke lanak? Emakume bat ordaindu beharko luke arropa jostunarengana eramanez tabernetan bazkaldu, prostituziora jo... dirua gastatu eta bai hotza dela etxerantzultzea eta inor ez aurkitzea!

Ezkundu, eta bere desioak egia bihurtuko dira! emazte maitagarri bat izanen baitu beti bera pozteko prest... etxea txukun eta bero aurkituko du, afaria gertu, kazeta mahaigainean, eta gero ohean... "ezkontza zorra", maitasunez beterik, hazi bala. Eta une hau izanen da onena, senarrari hau edo hori eskatzeko, eta ondo portatzen bagara, zer emanen

— Gizonarentzat, esklabu bat duelako beretzat legalki, emaztea halegia. Gizonak honi *bere borondatez* ordainduko dio iruditzen zaiona zerbitzu hauen truke. Eta etxeko lana, etengabekoa da. Zerbitzuak, mugagabeak dira. Horregatik esaten dugu esklabu eta ez langile soil-soilik.

Langileari bere lan-indarra erosten zaio. Esklabuari ez zaio ezer erosten, esklabua bera erosten da.

Nahiz eta emakumeak ere etxetik kanpo lan egin, bere ezkonzerbitzuak bete behar ditu eta etxeko lanetaz bera arduratuko da. Umeak amonarekin utziko ditu, beste emakume batekin halegia.

EMAKUMEA ETA KLASA SOZIALAK

Emakume bat zein klasekoa den esateko bere senarra zein klaseri dagokion begiratzen da.

Aztartzeko metodo hau ez zait zehatza iruditzen.

Gauza bat, pertsona batek une batean daukan kontzientzia da eta beste bat bere egoera objektiboa.

Burjeseriaren emakume gehienak ez dira burjesak baizik eta burjesen propietatea.

Emakume hauek betetzen duten lana ez da langileen emakumeena bezain gogorra. Esan dezagun, esklabuen artean, langileen artean bezala, ba direla desberdintasunak. Horrela, emakume hauk, luxuzko esklabuztat joko ditugu. Hauen eginkizun nagusiak: umeak egin eta harreman publikoak; etxea apaindu, bestak eratu, gorputza zaindu, ondo jantzi, ileapaindegira egunero joan, etab.

Kontzientzia aldetik, normalki gizonarenari darraizkio, eta lanpostu onenetako bat dutenez emakume bezala, zailagoa izaten da hauek langileen emakumeengan baino, egoera konkretu batekin haustea.

ETXEKO LANAK, NOLA EGIN BEHARKO LIRATEKEEN

Ahal den mailan, lan hauk kolektibatzea askoz ere efektiboagoa izanen litzateke, jantoki merkeak, haurtzaindegiak, etab. sortuz.

Kolektibatu ezin diren lanen ardura, komunitatean bizi direnen artean banatu. Eta noski, bai gizon eta bai emakumeek etxetik kanpo lan egin eta ez ordu gehiegi, umeekin egoteko eta beste gauzak egiteko ere denbora behar delako.

ORAINGO EGOERA, NOLAKOA DEN EMAKUMEENTZAT

Etxeko lana da emakumeek duten eginkizun nagusia eta honek ez du dirurik ematen. Honekin aski dugu, emakumeak dituen oztupoak neurtzeko. Separazioetan zailtasun handienetakoa hau izaten da. Emakumearentzat pentsioak eskatzen direnean, ba dirudi limosna eske dabiltzala abokatuak. Normalki seme-alabak mantentzeko ere gutti izaten da gizonek ordaindu behar dutena... eta hain beste urtetan emaztearengandik jaso dituzten zerbitzu dohainak? Horik ez dira ordaintzen.

ETXEKO ANDREENTZAT ALOKAIRUA?

Batzu honen alde daude, etxeko lana ezagutzeko bide bakarra delakoan eta orain emakume gehienentzat ekonomi sarrera bat izateko modu soila.

Beste batzu ez daude konforme, egoera hau betikotzeko arriskua duelako, emakumeari etxeko lanen ardura emanez. Nik ez dut horren garbi ikusten... Etxeko lanaren produktibotasuna azaltzeko modu bakarra deritzot gaur egun. Eta neskame bezala etxetik kanpo lan egiten dutenentzat exigitzen badugu, zergatik ez ezkonduentzat?

Bestetik, emakumeak BERE diru bat baldin badu, nire ustez posibilitate gehiago edukiko ditu interesatzen zaion beste bizibide bat aurkitzeko.

Eta noski, etxeko lanak egiten dituenarentzat alokairu bat eskatzen badugu, ordu batzu jarri behar ditugu, eta ordu hauetatik kanpo, lana banatu egin beharko litzateke, bai eta jaietan eta oporketetan ere, noski.

Puntu honetan gehiago sakondu beharra dago; beraz hauk, eztabaidarako ideia batzu besterik ez dira...

geure senartxoak? Ajaja!

ZERBITZU HAUEN PRODUKTIBOTASUNA

Etxeko lanak ez dira lan bezala kontsideratzen, eta ez "bereziki gogorrik" direlako baizik eta zerbitzuetan ez direlako.

Emakume bat, bere etxetik kanpo lan egiten du baina bere etxekoak balizki badira ez.

Prostituta batek dirua eskatzen du gogorrik gabe zerbitzu egin behar duenean, emazteak berriz "zor" bat eskatu senarrarekiko.

Postun batek kobratu egiten du bere lana, ama batek ez.

Umeak gordetzea ere, ordaindu egiten da, baina besteen umeak ordaindu ez direnean bakarrik. Lana, berbera da. Baina familia baten barruan egiten bada, ez da horrela ezagutzen.

Lan hauen produktibotasunari buruz, ba dira zenbait eztabaida; futbolioa sortzen dutela, ez dutela sortzen... Garbi dago plusbalioa sortzeko duen merkantzia bat sortzeko, langilea behar beharrezkoa da.

Nork sortzen eta hazten du langile hau? Emakumeok. Hemen gure lanik produktiboa, umeak sortzea halegia. Lan hau fisikoki egiten dugu, baina honen ardura gizarte osoak hartu beharko du.

Umeak ez direlako "guretzat" sortzen. Baina ez da horrela gertatzen. Umeak ekartzeko erabiltzen dituzte eta gero ume hauetaz beraien jabetzen dira.

Beste etxeko lanak ere produktibokiak dira kapitalarentzat. Langileak dituen esklabu bat baldin badauka, bere beharrik betetzeko soldata egiteko eskatuko du batetik, eta bestetik lasaitu egiten da bere lanpostuaren bidez.

— Kapitalistentzat, horrela ez diren beharrezkoak izanen liratekeen berbi tzurik. sortzen eta hauetan erabiltzen diren gastatzen.



OKERRAK ZUZENTZEN

Gramatikazko sail honen helburua alfabetatzerako laguntza eta batasuneranzko pausoak ematea denez, hitz edo esatemodu ber baten barianteak daudenean, horien arteko bat aukeratzera jotzen dugu. Gainera, kasu batzutan, bariante horietariko batzu modernoak dira, azken urteotan sortuak, eta, sarri, erdararen eragin diglosikoaren erruz jaioak dira; bestela esateko, erdarakadak dira.

Hauxe da, prezeski, oraingo artikulu honetan aztertu-ko dugun arazoa. Horrelako forma (hitz edo esaldi) batzu okertzat hartuko ditut; baina ohar bat egin nahi dut neure eritzi honetaz. Forma batzu oker daudela diodanean, okertasun hori gauza erlatibo bezala hartu behar da, zeren eta hizkuntzaren eboluzio naturalaren kausaz sortuak ere izan baitaitezke, edo eta oso erabiliak direlarik, beharbada egunen batetan onhartuak izanzen baitira. Dena den, artikulu honetan azaltzen ditudan bi kasuetan agertzen diren forma batzu, joskerazko erdarakadatzat joko ditut; eta okerrok zuzen daitezkeelakoan aurkezten ditut.

MENDIAN ZEHAR

Liburu eta aldizkarietan maiz irakurri ditut era honetako esaldiak: "hiritik zehar ibili ginen", "mendiaren zehar joan dira",... Eta -tik eta -aren atzizkiak gaizki erabilirik daudela uste dudanez, eritzi hori zertan finkatzen dudana eta esaldi horik nola idatzi behar lirakekeen azaltzera saiatuko naiz.

Diodan, lehenik eta behin, ezen hiztegi klasikoetan (Azkue eta Lhande) beti inesibo kasua ageri dela. Adibidez: "basoan zehar", "hor(txe) zehar". Hala ere, erdaraz "a través de", "à travers de" edo itzultzen denez, eta erdarazko "de" hori zer den argi ez dagoenez, esaldi horik euskarara itzuli nahian, nahasten eta forma berriak sortu dirateke: mendiaren, menditik. Edozein modutan, forma hauk ez dira hiztegi zaharretan ageri. Berrietan, ordea, bai. Horregatik, moderno samar eta erdarakada direlakoan nago.

Bestalde, testu idatzietaz gainera, euskara mintzatuan ia beti inesiboaren bidezko forma ageri dela esan dezakegu. Adibidez: Joan hadi hor zehar!

Arazo hau ez da soilik zehar hitzarekin gertatzen. Kasu berean daude gora, behera, barrena eta antzekoak ere. Ondoko esaldietan argi ikusten da horien erabilkeran dagoen paralelismoa.

- "Kalean gora, kalean behera, kalean gora zezenak" (herri kanta).
- "Barka batean barrena" (P. Lhande).
- "Lagun gabe joan nintzen portuetan barrena" (P. Lhande).
- "Iragan ziren ereitzetan barna" (P. Lhande).
- "Basoan zehar" R. M. Azkue).
- "Bergaran barrena" (R. M. Azkue).
- "Hezurretan barrena" (R. M. Azkue).

Eginiko arrazonamenduaren arauera, ba dirudi mendian zehar, basoetan zehar, kalean gora eta antzeko formak aukeratu behar direla, ezer aukeratzekotan.

ATSEGIN DUT

Esaldi hau entzun ordez, sarri atsegin zait entzuten dugu; idatzi ere, horrela egiten dute askok. Hala ere, nik neuk erdarakada bat dela uste dut, hurrengo lerroetan frogatzera saiatuko naizen bezala.

Hasteko, atsegin delakoa plazerra adierazten duen hitza dela esan behar da (beste zerbait ere ba da, baina tira). Izen bat, beraz. Ordea, aditzekin batera erabili ohi da; eta P. Lhanderi kasurik egiten badiogu, ondoko kasuetan guttienez: atsegin hartu, atsegin eman, atsegin ukhan eta atsegin izan. Azken bi hauk dira guri interesatzen zaizkigunak.

Ene ustez, arazoa euskara erdararen itxuratik desberdintzeko eta urruntzeko konplexuan datza. Euskaldunek, ia konturatu gabe, erdi lotsatu egiten gara (?) erdaldunen aurrean, hitz bat erdaraz bezala edo antzera esaten dugunean. Eta ahaleginak egiten ditugu, erdaraz ez bezala esateko. Baina ahalegin honetan, euskaraz gaizki dauden gauzak egiten ditugu batzutan; eta hori ez da zilegi. Ordua da, euskaldunok konplexurik eta lotsarik gabe erabil dezagun euskara; eta gauza batzutan erdararen antzekoa bada, ez da zertan antz hori aldatu behar. Baina zertara dator sermoi hau?

Hara! Erdarazko "me gusta eso" delakoa, euskaraz "hori maite dut", "hori gogo dut", "hori atsegin dut" eta "hori gustatzen zait" esan daiteke eta esaten da. Baina maite horrek bestelako hedadura semantikoa duenez, eta beste biak guttiago erabiltzen direnez, Hego Euskal Herrian behintzat gehien erabiltzen den forma, azkena dela esan daiteke.

Baina gustatu aditza erdaratik datorrela ikusten dugunez, hitz hori aldatzeko griña sortzen zaie batzuri. Eta bide horretan zehar abiatuz, batzuk gustatu hori kendu eta atsegin delakoa jartzen dute. Ez dira konturatzen ordea, atsegin zait delakoa egiturazko erdarakada dela, eta euskaraz atsegin dut esaten dela. Horrela zulo ttiki batetatik irten eta leize batetara sartzen dira.

Arazo honek, bestalde, ba du euskaldunon pentsatzeko eta mundua ikusteko moduarekin zerikusirik. Esaldia (eta beraz, mundu pertzeptiboarekiko harremana) subjektiboki —nik atsegin dut— edo objektiboki (behintzat objektua da nagusi, berak sortzen baitu egintza —niri gustatzen zait gauza bat—. Baina ikuspuntu honetaz luzeago mintzatu naiz hurrengo artikulu batetan, antzera gertatzen baita beste zenbait kasutan ere, adibidez irudi / eritzi bikoitaren kasuan.

ALFABETATZEN



Egizale bazara, irakurle, euskara ikasten hasi bazara, ondokoa irakurtzean harriturik gertatuko zara. Itzulpen berezia erderara egin dezazun gonbidatzen zaitugu. Orjinala erderaz egon da baina Suarezen demokraziak, oi mirari handia!, euskara batuaz ipini digu.

—Berri kontrola Zornotzako irteeran, lehen esan dizudan leku inguruan. Kanbio eta moztuko dut.

—Gernikako gasolindegian gaude eta berehala guztiak hona erakartzeko gende gehiago behar dugu. Kanbio.

—41 eta 42. Joan zaitezte Gernikako gasolindegira. Berton "indarrak" daukazue eta laguntza behar dute.

—Ariñ!
—411-ri.

—Leku horretako berriak pasa.

—Hemen denok Gernikako gasolindegian. Hauxe guztia inguratutik daukagu. Arkatzen ari gara. Kanbio.

—Pisu bat inguratu duzuela? zergatik?

—Hemengo eraikuntza baten inguruan gabiltza, informazioek dioskutenez, batek hortik zehar ihes egin du eta.

—Hortik ihes egin duela batek?

—Hemendik, hemendik inguruan ibili behar du eta arakatzen ari gara.

—Ederki, segi hortik.

—Konforme.

—Aurrera.

—541-400 2-ri.

—A ba, Kurutzetara (Cruces) "indarrak" bidaltzea komenigarria izango litzateke, ETArrarekin joan den anbulantzia hori errezibitzeko. Kanbio. Zauriturik. Konforme.

—Kontrola, kontrola, emandako puntua berririk gabe. Beste berriren bat lana errazteko ba al daukazue? Kanbio.

—Ez, oraindik ez. Bakarrik hori. Begiak berne (presten el máximo interés) jostekabeetan ez erortzeko. Kanbio.

—2 31-ri.

—Bilborantz anbulantziarik pasatu al da?

—Anbulantzia? Hemendik ez da ezer pasatu. Kanbio.

—Entzunda.

—Zauritua nola eraman duzue, anbulantziaz edo "cuerpo"ko kotxeren batez?

—Zauritua anbulantziaz ebakuatu egin da. Kanbio.

—Beste berriren bat hortik?

—Lehen bezala gaude. Kanbio.

—Konforme.

—Kapitainak esan digunez gelditu (estacionar) egin gara eta karabana pasatu eta berehalaxe...

—Aurkitu dutela susmatzen dut, base-ri batetan tirokatzen ari dira eta.

—Zuengandik hurbil al dago?

—Kotxe batetan aparkaturik nagoen-
tik 100 edo 150 metrotara gutti
gora behera dago.

—Beno, ba hortxe geratu, eta beharrezkoa bada, joan zaitezte laguntzera, e!

—Konforme. Entzunda. Kanbio.

—Joan zaitezte horrengana, laguntza behar du eta.

—Berriren bat?

—Ez. Beti bezala gaude. Dena arakatzen.

—Berriren bat gehiago?

—Ez, ni hemen bakarrik nago eta, auto ondoan erdi erretiraturik dagoen beste lagun batekin.

—Ba, hona zeozer berririk gertatu delako albistea heldu zaigu.

—Esadazue egia den ala ez, zera... hil bat egon dela.

—Hila ez diezazuket esan, baina zauriturik uste dut baietz. Informazio zerbitzuko norbaitek tiro egin dio.

—Beno ba, ekintzaren ondorioa pasatu.

—Konforme.

—Aurrera:

—Kaporal batek diost zauritu bat egon dela eta Kurutzetara bidali dutela.

—Beno, "en primera instancia edo geroago".

—"En primera instancia, en primera instancia".

—Berriren bat al dago gero?

—Orain arte ez dago ezer. Kanbio.

—541-400/541-3'ri.

—42-ri esan diodana entzun al duzu?

—541-400/541-3'ri.

—Ikus dezagun, "irten dena" nor den esan, esan nahi didak?

—3-2 aurrera.

—Lehen eman dizudan berria egia al da?

—Bai, dena soluzionaturik dago.

—Baina egia al da lehen esan nizuna? ez da?

—Bai, baina "Gurute gorriari" buruz esan duzu, ez da?

—Bigarrenari buruz, bigarrenari!!!

—Beno, hori ez dakit. Telefonoz esan niezazuke, ez da?

—Esadazu garbi. Bai ala ez.

—Bai, baietz. Hemen dago jadanik. Aurrera.

—Ez dakit hemen gertatu denetaz jabetu zaren?

—Esadak, Bernardo. Aurrera.

—Hemen bat dago, eta Kurutzetara eraman duzun bestearekin, bi. Ba dakite zergatik egon den nahaste borrastea. Berria nik zabaldu dut baina gero konfusioa zegoela esan zidaten.

—Zorionak, e?

—Ez! nire guardientzat. Niretzat ez. Beraientzat.

—Ez, coño! Denentzat!

—Aizu, bigarrena zerez izan da? Ikaraz ala damuz?

—Biak batera.

—Ji, ji, ji, pozten naiz. Zorionak denoi. "Ole un capitán con dos cojones!!"

—Nork hitzegiten du, nork?

—Nik.

—"Así hay que hacer con todos y viva la benemérita."

—A ba, zeozer behar dugu hemen dagoen hau eramateko.

—Konforme, funeraria dei egin dezakegu, guk deituko diogu... eta juezari.

—Entzunda. Entzunda.

—Con discreción para la autopsia y todo el tinglado este. Hobe Gernika guk deitu, problema soluziona diezazuten.

Ondak libre dira. Komunikabideak denentzat izaten dira. Faxismoak bakarrik kontrola ditzuke irratietatik entzuten diren hotsak.

Anaitasuna-rentzat

JAKIN

EUSKAL KULTUR
ALDIZKARIA

Hiruhilabetez behin ateratzen da

Monografiak
Dossierrak
Azterketak
Kritikak
Gaurko gaiak

Oraingo zenbakiaren gai nagusia:

NAFARROA

Oraingo zenbakiaren lankideak:

Bueno Asin, Jesús
Jimeno Jurio, Jose Mari
Larunbe, Pedro M.
Mendikute, Jose A.
Mina, Mari Kruz
Ruiz Olabuenaga, Jose I.
Satrustegi, Jose Mari
Torrealdy, Joan Mari
Urrutia, Víctor


JAKIN

800 pta. urtean. 250 alea

Eskabideak eta harpidetza:

Cuartel, 2
Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 65 11 06

SUKALDERAKO SALTSAK



EL CALDERETE (Erriberako Lapikokoa)

Gaztelaniazko izen honek erakuts dakigukenez, lapiko batetan egosten den janari moeta asko egin daiteke. Beraz, calderete asko dago, eta hemen ipinitakoa ez da bakarra izango. Modu berdinean, ortuari eta okela diferentziaz osatu daitezke edozein calderete.

6 lagunentzat jateko hau prestatzeko ondokoak beharko dituzu:

2 biper berde, bi tipula, 3 azenahoria, baratzuriburu bat, 6 alkatxofa, 12 zainzuri (frantses porru), 9 patata (handi samarrak), barraskilo¹ batzu, ilar batzu, hiru tomate, bildots kilo bat t'erdia (magala edo eta aurreko hankak) zatituta, olibolioa, gatza, ereinotza² eta xarbota³.

Zuri, zati eta garbitu ortuari guztiak. Sartagin handi batetan (paellera edo eta lapiko) ipin katilu bat olibolioa. Berton bildots zatiak, barraskiloak eta ortuariak doratu behar dira.

Ortuariak latazkoak badira ez dituzu orain doratu behar, azkenerako gorde eta orduan botako dituzu.

Bost minutuz doratzen egon eta gero bota itzazu patata guztiak eta urez janari osoa estaliko duzu. Bota ezazu orain gatza, ereinotza eta xarbota. Ordubete beharko du jateko honek prest egon dadin. Beti urez estalirik egon beharko du, ur gehiago behar duenean gainetik botatuz.

Jateko hau oso egokia da mendian, lagunartean, erretura batetan egiteko.

On egin.

¹ Caracol, escargot.

² Laurier, laurel.

³ Tomillo, tym.



musika

"Endeless wiew".
GORDON LIGHTFOOT.

Exituaren bila ibili gabe country rock-aren eta folk rock-aren bideetatik abiatzen da Kanadako kantari hau. Garbi agertzen da disko honetan ere Gordon Lightfoot-en lan guztian dagoen giro nekazaria. Kantaren bat aipatzeko, aintzinako koblakariet dedikatutako "Sones the minstrel song" aukeratuko genuke. Baita ere aipagarria da "The circle is small", aspaldian ezaguna baina orain arte argitaratu gabea.

Betiko musikoekin, Gordon Lightfoot-en "Endeless wire" beste lan gardena eta ederra du.

"Vanguardia y pureza del flamenco".

SMASH-AGUJETAS
con MANOLO
SANLUCAR.
ES.-35.003
CFE-ZAFIRO

Smash, orain "rock con raíces" deritzen mugimenduen aintzindariak izan ziren. Ba dira sei urte disko honen A aldea grabatu zenetik. Dena dela, lan honek ba du orain flamenkoa aurreratu nahian dabilzan talde askok lortu ezin duten freskura eta xarma.

B aldea, berriz, ezin zitekeen hobekiago hauta: Betiko flamenkoa Agujetas-en eta Manolo Sanlucar-en gitarrarekin.

"A tapar la calle"
PABLO GUERRERO.
Movieplay.

Kantu batzuk hemen pasatzen ari den denborari buruzko joera ironiko bat dute. Adibidez: "La increíble lista del padre, la madre, el niño y la niña". Beste batzu, berriz, Pablo Guerrerok lehenagotik ere erakutsitako edertasunez egindako amoriozko poemak "Si volvieras otra vez" edo "Enredado en tu pelo". Azkenez —diskoaren ezauzgarri gainera—, Guerrerok orain arte horrelakorik egin ez badu ere, esperantzaz beterikako kantuak agertzen ditu. Utopiari buruzko kantuak, festa giro batez eta herria protagonistan bezala harturik.

Diskoaren atmosfera ez da besteetako bezain gaztelarra. Joera andalusiarra gainditzen da, gitarra flamenkoa eta guzti.

Karlos Arko

naz idatzia eta lerro uneak zuri utzirik, folio edo DIN A-4 paper neurrian.

5. Sari bat, 1.000,00 dolar USA-koa eta eman beharrezkoa izango da. Beste saria, 500,00 dolar USA-koa, aipamen berezi edo "acesit" gisa epai-mahaikoei egoki iruditzen zaien lanari emanen zaio.

6. Lanak argitara gabeak izan behar dira eta hiru kopia bidali behar dira Euskaltzaindiaren etxera (Rivera, 6 - Bilbo 5) abuztuaren 15a baino lehen, lema batekin izenpetua eta lemaren giltza estaldua egilearen izen eta deiturrekin, lanarekin batera igorriaz.

7. Epai-mahaia, E. L. E. eta C. E. A. b.-ren izenean, Euskaltzaindiak izenpetuko du.

8. Sariak azaroaren lehen, Durangoko "Euskal Liburu eta Diska Azokan" emango dira.

9. Arau hauk interpretatzean sortzen diren arazo guztiak epai-mahaia erabakiko ditu, behar izanik E. L. E. edo C. E. A. B.-ren zuzendaritzaren laguntzaz eta erabakien kontrara inora joaterik ez da egongo.

10. Urte beteko epea ematen zaio 1.000,00 dolar USAko lanaren egileari bere lan saritua argitaratzeko. Horrela izan ezik, E. L. E.-k bereganatuko ditu lanaren gaineko eskubide osoak.


V SEBERO ALTUBE IDATZ
LEHIAKETA

OINARRIAK

1. E.G.B. ikasten ari den edonork har dezake parte.
2. Lanak egileen ikastetxearen bitartez bidaliko dira. Ikastetxe bakoitzak, gehienez, jarritako bi mailtara lan bana bidaliko du.
3. Lanak euskaraz egin behar dira, Euskaltzaindiak tinkatu dituen arauetara jarraituz.
4. Lehiaketa honela banatuko da, idazleen adinako arabera:
(A) 6-10 urtetakoen maila
(B) 11-16 urtetakoen maila
5. Lanaren agorpenak baldintza hauk beteko ditu:
- Orriak DIN 4 motakoak
- Makinaz idatzirik, alde bakar batetik eta tarte bikoaz
- izenburuaren ondoan, lehen katean, lanari dagokion maila ezarriko da.
- Bina kopia bidali behar dira.
6. Sobre hitxi batetan ondorengo datuak jakin araziko dira:
- Lanaren izenburua
- Egileen izen deiturak eta adinak
- Ikastolako helbidea
- Irakasle arduradunaren izena

7. Lanen gaia eta zabalera
(A) mailan: gaia libre zabalera: 5-7 orri
Egilea bat bakarria izanen da
(B) mailan: lana monografikoz izanen da
lana taldez egin daiteke
8. Sari berezi bat izanen da, 3 mailara azaltzen dan antzerki lanik onenari
9. Lanak bidaltzeko epea, EKAINAREN 12ean amaituko da.
10. Ekainaren 23ean baino lehen antolatzaileek aipatutako epaimahaia bere eritziak jakin eraziko ditu eta hauk behin eta betikoak izanen dira.
11. Lehiaketara bidaliko diren lan guztiak antolatzaileen eskuetan geldituko dira
12. Sariak
(A) mailan
1.-10.000 ptas.
2.- 5.000 ptas.
(B) mailan
1.-20.000 ptas.
2.-15.000 ptas.
Antzerki sari berezia.
13. Lanak helbide honetara bidaliko dira:
"DANOK" KULTUR TALDEA
Resusta, 33. Mondragón (Gipuzkoa)
14. Araudi honetan aipatzen ez denik gertatuko baltz, antolatzaileek erabakiko lukete.

Arrasaten, 1978ko apirilaren.



1978.ko Maiatzak 12

ANAITASUNAKO Zuzendariari:

Euskal Herriko herri kultura zaharrea, hainbat ohitura daude berpiztu behar genituzkeenak. Alor guztietan errepresioa eta alenazioa nagusitu egin zaizkigun gizarte honetan, eguneroko bizimodua, aspergarri eta astuna egiten zaigu askori. Aintzinako Euskal Herriari begiraturik gaurko ere lagungarri gerta dakigukeen zenbait gauza ba diratekeela uste dut. Aintzinako erara AKELARRERAK egitea esperientzia berri eta interesgarria izan daitekeela uste dut. Fetxarrik egokiena horretarako, Ekainaren 23aren gaua, San Juan egunaren bezpera izan daitekeela uste dut.

Ezin dut deabrua, aker jantzirik agertuko zaigula segurtatu. Baina zein menditan janariak, edariak eta beste guztiak... denon artean erabaki dezakegu.

Idea honetaz interesaturik zaudeketenok idatziezadazue zuzenbide honetara.

J.M. Iturbe

Hollerias Altas 25-7-dcha

Bilbao

36. hor.

Zuzendari jauna,

IPARRETARRAK taldeak beregain hartzen du Zuraiden egin ekintza.

Zergatik desegin dugu Zuraideko "Hameau du Soleil"?

Zuraideko "Hameau du Soleil", Angelukoa bezala, turismari buruzko gata baten barnean da. "Hameau du Soleil" horiek dirudun batzuk dituzte eraikitzen edo egin-arazten, beren interesendako, "Société des Hameaux du Soleil" delako talde pribatu horren laguntzarekin, komertzializatzen, itzulikarazten eta kudeatzen dituztelarik.

Frantses Estatuak eta bere lekuko mutilek, Ipar Euskal Herriko hautatu duten turismoari buruzko politikak, laguntza ezin hobeagoa ekartzen dio turismo mota huni, gure herria bere jendetzeaz hustuaz eta Ipar Euskal Herri erakutsiz lurreko paradisua bezala bere folkloreakin, bere kantu zaharrekin, bere arraza azkar eta haundiarekin, surfa eta korridak dituenak, Espainiako atea dela eta bertze.

Itsasuko bigarren etxearen kontrako ekintza eta Irratiko teleski eta txaleten kontrako ekintza beregain hartuz, IPARRETARRAK taldeak salatu du herrietako edo sindikatuko lurren ebaste edo ohointza legala. Lur horik laborarien eta lurrik gabeko artzainen laneko tresnak dira eta bizitzeko lur horren beharrik ez duten dirudun batzuk ebasten dituzte eta hori turismo baten izenean.

Zuraideko ekintzaren medioz bertze turismo mota bat salatzen dugu. Zuraideko "Hameau du Soleil" hau, paristar batena da, "Société des Hameaux du Soleil" horrek laguntzen duelarik. Jaun hori eta sozietatehori herriaren diruaz baliatu dira eta bide berean herritarrek diruaz. Zeren eta Zuraidek 4 tenesiko toki, pizina bat, volleyko terreno bat eraiki ditu, elektrikako eta telefonako hariak, bideak eta bertze, ezarri ditu, hots turismo klase batendako beharrezkoak diren gauza guztiak.

Turismo klase bat, bai, zeren eta aste baten pasatzeko "Hameau du Soleil" hortan 850 libera pagatu behar baita, bakarrik *egoitzarendako* (janaria bestalde), heldu baita 3.500 libera hilabete batentzat. Langile ximple batek ez du hainbeste pagatzen ahal, bakarrik jende klase bategu du pagatuko.

Nork pagatu ditu instalazioak? Nork baliatzen ditu? Lekuko jendeak dituzte jostatzeko leku horik pagatu, baina aldez turistek dituzte baliatzen.

Langabezia gatik, gazteak dira herritik joaiten, laborari etxeak dira husten ari, baina ongi lagunduak daude dirudun batzuek dituzte benefizioak egiten, lehenik zuraidarrek ebatsiz, gero turistak ebatsiz.

Herriaren biziarentzat probetxugarriagoa laike gure zergetako dirua baliatua balitz lanbideen sortarazteko eta laborantzaren azkartzeko.

Borrokan ari gara eta ariko gara *dirudunek dirudunentzat egiten duten* turismo horren kontra. *Fermuki galde egiten dugu gure zergetako dirua eta Ipar Euskal Herriaren eginak diren benefizioak baliatuak izan dituen industrietako, laborantzako eta laborantza ondoko lanbideen sortarazteko gure herrietan.*

78.eko maiatzean

IPARRETARRAK


Basaurin, maiatzaren 17an

ANAITASUNAKO Zuzendariari:

Maiatzaren lehenengo ANAITASUNAN Julian Otsotorena sasi izenez sinatzen duenaren artikulua irakurri berria dut. Horrelako artikulurik ANAITASUNAKO orrialdeetan agertzea ez da harrigarria. Ni ez naiz PNVkoa baina artikulua horretan Otsotorena horrek edo otsotorek marra gainditu du. Niretzat argi dago, artikulua horren sasi izena Kintana bera da. Hala ikusten da bai estilon, bai esandakoetan. Nondik arraio datorkio Kintana jaunari PNVrenganako hainbeste amorrazioa? Manifestaldi horretan probokatzaileak ez ziren PNVkoak, probokatzaileak beste batzuek izan ziren. Azken hau aski frogaturik dago eta denok onhartzen dugu. Nik ez dakit, seguru ez nago eta, PNVkoak Sabin etxera joan nahi zutenentz. Ba dakit bestela, zein den Sabinoren ideologia baina hala ere PSOE hor zegoen: eta ez dut uste nik sozialista eta iraultzailea denik. Euskalduna Manifestaldi horretan parte hartzeko PNVk eskubide guztiak zeuzkan. PNVko langileak gehiago. Kintanaren Ukronia irakurri eta gustatu zitzaidanak ez du bat ere zerikusirik Bilbon gertatu zenarekin. Eta berak horrela uste badu akronia iraunkor batetan bizi dela erakusten digu, eta benetan min handia hartzen dut. Utz beza PNV lasa, beren gauzuekin eta kritikak egiteko sakonki eta funtsez egin bitzaio, zeren ba dakiela uste dut.

M. Otaola


12



12. ZENBAKIA

LUZETARA

1. Euskal simbolo zahar.
2. Mus jokatzean entzuten dena (2 hitz).
3. Agintera (laburpena).
4. Jauna (ingelesaz).
5. Behien jeneroa.
6. Ongailu bat.
7. Villasante-ren laburpen maiteena.
8. Ipar aldean, karririk; hego aldean,
9. Galdetzeko partikula.
10. 'Modu' edo 'traza' adierazten duen hitz edo atzizki.
11. Mediterranioko irla.
12. Elementu irradiaktibo.
13. Malko.
14. Gizonezko.
15. "Jai haiz garbia?"
16. "Bai, ama,"
17. Memoria.
18. Kasik (hitz berretua).
19. Entzumen gabeko.
20. Gure ezagunena Portaldean da.
21. Bizkaia ta Leon arteko gudu legendaria (letreiu h-dunarekin).
22. Intsektu txiki.
23. Zenbat dizut?
24. Atzo gauean.
25. Lur behean bizi den pertsona.
26. Eta (etcetera).
27. Adibidez (laburpena).
28. Garbitu.
29. Gehienetan, hau pilota-lekua ondoan da.
30. Arabia.
31. Errusiako enperadore.
32. Oihu bat.
33. Aste- edo uda-
34. Ixilik!
35. Bitika.
36. Asiako hegoekialdeko jende edo hizkuntza bat.
37. Bilbo ondoko herri.
38. "Ez gure odol beroa Bizi dadin gure Xiberoa!"
39. Bizkaiko haran.
40. J. R. Etxebarriak, "Gora Euskadi" esan dezagun nahi du.



Egilea: Larry Trask

GOITIK BEHERA

1. Jose Maria Agirre.
2. Tindagai urdina.
3. Zurezko ontzi handi bat.
4. Umeak zaintzen duen animalia.
5. Atzizki datiboa.
6. Gizonezko uso.
7. Helio (simbolo kimiko).
8. Musika talde (laburpena).
9. Kain-en anaia.
10. Kotoia.
11. Euskal kanta talde ("Ni Bizi Naizen Lurrean" egin zuena).
12. Amona ikustera joana, otsoak jana (2 hitz).
13. Fin, akabu.
14. Lapurdiko dramagile (*Senperen gertatua* egin zuena).
15. Elizan, ezkontzarako ikusiko dituzu.
16. Euzkadiko pasaporte.
17. Jausi (infinitiba).
18. Ume (bizargabeko gaztea).
19. Askotu, gehitu.
20. batez (ezakortik ez izanik).
21. Jori, franko.
22. Taberna.
23. *Nora*, Patxi Villamor-en diskoa.
24. Txomin Agirre-ren nobela bat.
25. Euskal burukoa.
26. Ihardun, ari izan.
27. Hauk berak.
28. Ekialdeko merkatu.
29. Mahai-oihal.
30. Pesimista.
31. Gai kaustikoa.
32. Ulertu (infinitiba).
33. Espainiako sindiko.
34. Bizkaiko herri.
35. Euskal letra.



ZILARREZKO KRABELINA

Zenbaki honetan GATIKako herria doa gure zilarrezko krabelin polita, bertakoek ongi merezia baitute. Herri horretako sarrera guztietan GATIKA, ongi etorri, bienvenidos irakur daiteke, hau da, herriaren euskal izena —comme il faut— euskara hutsean jarrita. Ondoan ongi etorria ere gure hizkuntzan dator, azkenik, kortesia ahantzi gabe, erdaraz bienvenidos agertuz. Eredue benetan imitagarria GATIKakoa.

Horrenbeste gustatu ez zaiguna, ez horixe, zera da, kartel horietan pintaturik dagoena, eta ez, noski, siglekin konforme ez gaudelako. Zoritxarrez, makina bat toki eta erdal kartel ditugu bazterretan holakoak jartzeko aproposagoak, mutilok! Euskaraz behar den moduan bat ipintzen dugun baterako, horixe ere zikindu behar al genuen ba? Ez gaitezen hain astoak izan, otoi!



ESAERA ZAHARRAK

Nork nori, hontzak birigarroari: buruhandi! *Esaera horrek ba du beste bariante ezagunago bat: Zozoak beleari: ipurbeltz! Bien esangura bera da, eta ironiaz betea. Inork ez duela besteren lepotik burlik egin behar, berak besteak baino akats nabariagorik baldin badu. Esate baterako, Manu Escudero PCEkoak ez gintuzte euskaldunok, zentzu pejoratiboz gainera, "nazionalista" deitu behar, bera eta beraren kideak bekatu horretan gu bainoagoak direnean, Aresti zenak zioenez: "Amorrua ematen didate euskaldun nazionalistek, baina are amorru handiagoa ematen didate espainol nazionalistek, haik gehienez bi milioi diren artean, berauk gutienez hogeit mila milioitik gorakoak baitira.*

Oihenartek, zentzu bertsuan, zera zioen: Besteren buruko zorria dakusa eta ez bere lepoko zerria. Hitz batez, bere etxeaz beiraz estalirik duenak ez duela inorenara bota behar harririk, jaunak.

72

HARRI BATEKIN HASI ZEN



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO


gizaldiz gizaldi aurreratzen

Caja Laboraleko zozketan

78 udako Oporraldirako Soluziobideak ere 78

Zortzi 'SEAT' Auto

132 bat, 1.200Sport, 131 bat, 128 bat, 133 bat, 127-2 a bat, 127-4 a bat, eta 124 -D. bat.



eta 70 'Vanguard' Irrati-kassettegailu eder zozkatuko ditugu.

Aurtengo oporrak prestatzen hasi bazara, adi: Caja Laborala, zutaz pentsatuz, udako zozketa harrigarria antolatzen ari bait da bere aurreztaileentzako. Joan-etorriak hutsean eta zeuk nahi duzun konpainian gainera.

Joan-etorria hutsean egin dezazun, 8 SEAT AUTO bikain zozkatuko ditugu. Hasi baliotsuenetik eta tiki eta politeneraino.

Eta, nahien duzun konpainia hauta dezazun 70 «Vanguard» irrati-kassetegailu ere bai. Honela, 78 udako oporraldia bete-betekoa gerta daki-zuen,

Caja Laboraleko 78 lagun sarituko ditugu, noski.



**CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AURREZKIA**